



MOTOR GEHIGARRIA / 15

Gerediaga, bere 60. urteurrena ospatzeko prest

Gerediaga Elkartek 60 urte egin ditu Durangaldeko ondarea, kultura eta historia ikertzen eta hauspotzen. Ospakizun ekitaldiaren atarian, ANBOTO elkarteko Asun Elorriagagaz eta Aingeru Mimentzagaz batu da / 12



Mallagarai, musikariaren aurkezpenean.



**"KOREOGRAFIK
ETA ESZENOGRAFIA ZEROTIK
SORTZEN GABILTZA ETA
HORI ERRONKA ITZELA DA"**

Paule Mallagaraik Marierrauskinen papera jokatu du Stage ekoiztetxe sonatuaren musikal berrian; urriaren 3an estreinatuko dute, Madrilgo Coliseum / 25

STAGE.



**Arrinda familia durangarrak
Julian Arrinda meteorologoaren
biografia ikertu du** / 2-3

BEHERAPENAK!!

ŠKODA AUTOETAN

**BERRIA
edota
KM.0**

**SKODA
ABADIÑO**

10.000€
- raino

BEHERAPENEKIN



ŠKODA - GRUPO ORTASA
MATIENA AUZOA - MURUETA
Abadiño (Eroskiren aurrean)





Eusebia Berasaluze eta Julian Arrinda senar-emazteak. ARRINDA FAMILIA

Julian Arrinda: bizitzak salbatu zituen meteorologoa

Durangoko pertsonaiaren inguruko ikerketa egin du haren familiak, bere inguruko dokumentuak jasota; prentsan agertu ziren albiste eta iragarpenek erakusten duten legez, Arrindaren iritzia kontuan hartzen zuten hainbat arlotan

Arrinda familia

Eguraldia iragartzea lan zaila da, analisi egokia egiteko faktore ugari sartzen baita jokoan, baina, aldi berean, zirraragarria ere bada, iragarpenak biziak salbatu ditzakeelako.

XX. mendearen hasieran, Durangoko meteorologoa famatu egin zen. Ez zuen neurtzeko inolako tresnarik, baina, memoria ikaragarri baten jabe izanik eta aldaera guztiak aztertuz, eguraldiaren gorabeherak eta aldaketak erregistratzeko gaitasuna izango zuen.

Julian Arrinda Oregi, hala zuen izena meteorologo ospetsuak, 1872ko abuztuaren 6an jaio zen, Berrizko Belakortu baserrian, eta Mallabiko Mailaldekoa baserriko Eusebia Berasaluze Azpitartegaz ezkondu zen. Senar-emazteek Durangora egin zuten. Julian Ferrocarriles Vascongadosen

konpainiako trenbideak konpon-tzen zebilen langile brigadara joan zen lanera, eta Eusebia Kurutzia kaleko taberna bat kudeatzera. Ondoren, Ezkurdira joan ziren, gaur egun BBVAren sukurtsala dagoen lekura. Hasieran, Fonda Arrinda jatetxea zabaldu zuten; gero, Comidas Arrinda izatera pasatu zen, eta, azkenik, iragarpenen ospea aprobetxatuta, Restaurante Julián Arrinda izenagaz ezaguna egingo zen.

Hasieran, Julianen iragarpenei ez zieten jaramonik egiten, baina, itsasoa bare egonik, Kantauriko kostaldea suntsitu zuen enbata ikaragarri baten ondorioz, Julianengan sinesten hasi ziren, Bermeon hainbat arrantzale hil zen, eta egun hartan. Izan ere, batzuetan kofradiak Arrindaren telegramak ipintzen zituzten Arrantzaleen Biltegien atarian, eragin zabalagoa izateko.

Julianen ospea hainbestearino hedatu zen, non Castro Urdiales, Santoña eta Laredoko Arrantzaleen Kofradiak ere telegramak bidaltzeko eskatu baitzioten.

Arrindaren iragarpenak Bizkaian argitaratutako garaiko idatzizko hedabiderik gehienetan azaltzen ziren: El Liberal, El Noticiero Bilbaíno, Euzkadi, El Nervión edo Excelsior (kirole-takoa) hedabideetan.

José Camarero durangarrak, diputatu probintziala izanik, lan handia egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, besterik ezean, Juliani telegramen kostua ordainarazteko. Diru laguntza ematea lortu zuen. Hala ere, askotan kendu egiten zioten, Kutxa Probintzialaren baliabide ekonomikoak urriak zirelakoan.

Behin, Bizkaiko Arrantzaleen Kofradiak diru kopuru bat eskaini zion, El Liberal egunkariak 1928ko ekainaren 15ean argitaratu zuen kronikan ikusi deza-kegun moduan.

Batzuetan, telegramak bidaltzeko adina diru ez zeukala eta, Durangoko telegrafo buruak fidantzan ematen zion. Baina, hileko iragarpen bi egiten bazituen, ordaintzearena zailago jartzen zitzaion Juliani, eta funtzionarioaren eskuzabaltasunari eskerrak lortzen zuen bidaltzeko egitea.

Dirua dela eta, Julianek kritikak jasotzen zituen lagunen artetik, seme-alaba ugariaren aita zelako, baina eguraldia iragartzearena Jainkoak emaniko dohaina zela erantzuten zien berak, denen zerbitzura jarri beharrekoa.

Eta bere zerbitzuak, arrantzaleei ez ezik, herri xeheari ere eskaintzen zizkion, agerikoak baitziren orduko zezenketa plazak eta frontoiko esku pilota partiduak.

Bilboko Aste Nagusiaren bezperan ere kazetari edo zezen

plazako enpresabururen bat etorriko zen eguraldiaz galdeztera. Pronostikoa egin ondoren, sarrera pare bat oparitzen zioten, baina ez zen inoiz zezenketa bat bera ere ikustera joan.

Hala, 1928ko ekainaren 15eko El Liberal egunkariako lehenengo orrialdean, Durangaldeko jaiak irudikatzen zituen kartelean, Ezkurdi parkea, Urkiolako eliza eta Julian Arrinda baino ez ziren agertzen.

Eztabaida politikoak eta probintzialak alde batera utzita, El Liberal egunkaria oso kritikoa izan zen Julianegaz. Batez ere, Bizkaia ez zuelako behatoki meteorologikorik, Gipuzkoak ez bezala, eta eguraldiaren iragarpena hain garrantzitsua izanik, oinarri akademikorik bako eta inolako bitarteko teknikorik bako morroi baten esku uzten zuelako.


Azkenik, egunkariak Julián Arrindaren lan eskuzabala aitortu zuen, honako kronika honen bitartez, non lanaren domina eskatzen baitzen Julianentzat, inoiz jasoko ez zuena, hain zuzen ere. Gauzak horrela, han-hemenkako pasadizoren bat kenduta eta gerra zibila tarteko, Julianek heriotz goiztiarra izan zuen. Eta, ezinbestean, bere irudia lausotu eta itzali egingo zen.

Itsasoaren egoera aztertzen

Juan Miguel Orcolaga abadea, Igeldoko Behatoki Meteorologikoaren sortzailea Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradiaren laguntzagaz, harrituta geratzen zen Arrindak itsasoaren egoera barnealdetik iragartzen zuenean.

Behin, Behatokiak ur-denboralea iragarri zuen. Arrindak esan zuen Orcolagak, zituen aparatu guztiekin, ez zuela asmatuko, ekaitza lehertuko zela, baina ez ur ekaitza, haize ekaitza baino. Eta hala izan zen.


Orcolagak Igeldora gonbidatu zuen. Aurrez aurre ezagutu gura zuen eta bere jakin-mina ase. Iragarpenak egiteko zertan oinarritzen zen galdetu zion. Arrindak erantzun zion haizeen norabidea, hodei motak, eta egun batzuk eta aste batzuk lehenago ere egindako eguraldia kontuan hartzen zituela. Horrek guztiak itsasoaren egoera asmatzeko ere balio zion. Behaketak egunean bitan egiten zituen, Durangotik Abadiñora



El Noticiero Bilbaíno 1927, ekainaren 14koa



Excelsior, 1930, ekainaren 11koa



Arrindari buruzko idatziak sasoi hartako hedabideetan.


bidean, goizean eta iluntzean. Pozik etorri zen Igeldora egin-dako bisitatik, ikusitako apa-ratuengaitik, eta harro, hain-beste baliabiderik barik egu-raldi iragarpenetan lehiakor sentitzen zelako. Amaitzeko, azpimarratzekoa da gizon bihoz-bera zela, bere diru apurraz behartsuei laguntzen atsegin handia hartzen zuena. Miguel izeneko eskalea ezagutu zuen, eta sarritan joaten zitzaion es-kean zegoen Andre Maria eli-zara. Julianek lapiko txiki bat babarrun eramaten zion, baina,

ustekabeen, Miguelek oinorde-tzan dirua jaso, eta esker onez Arrindari kiloko ogi bat hela-razten zion egunero.

Gerra zibilaren hasieran, Do-nostia tropa frankisten menpe jausi eta gero, Igeldoko beha-tokia Bilbora eraman zuten.


Handik gutxira, gaixotasun larri batek astindu zuen eta Durangoko bonbardaketan Asun-ción alaba galdu izanaren su-frimenduagaz, Julian Arrinda, ongia egin eta biziak salbatu gura zituen meteorologo umila, 1937ko urriaren 16an hil zen.

El Liberal 1930, ekainaren 7koa



Pilota partiduetako eguraldiaren iragarpena

Juan de Olazaran abade du-rangarrak, Andra Maria pa-rrokiako organistak, 1951ko Sanantonio Jaien Egitarauan idatzita utzi zuen pilota par-tidu ospetsu bat hastera zihoa-la ikuslegoa beldur zela fron-toian sartzeko, zeruak euria zekarrelako. Enpresariak, kezkatuta, Julian Arrinda-rengana jo zuen eta honen pronostikoa aldekoa zela iku-sita, pilota zaleak sartzera animatzeko eskuz idatzitako agiria eskatu zioten Juliani.



**HARRIGARRIA
IZAN BAZEN ERE,
EZ ZUEN EURIRIK EGIN.
BETE EGIN ZEN**

Eta, harrigarria izan bazen ere, ez zuen euririk egin. Pi-lotalekua bete egin zen, par-tiduak aurrera jo zuen eta Arrindaren gramatika arauen kontura hamaika barre egi-teko ere aukera izan zuten.

Julian Arrinda, El Liberal egunkarian.

AMOREBIETA-ETXANO

★

2025

haizetara

EKAINA

20•21•22

XVIII. FANFARREN, BANDEN ETA KALE MUSIKAREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

UNDERTOW BRASS BAND (USA)

THE BRASS FUNKEYS (UK)

LA REVUELTA (SWITZERLAND)

ZYGOS BRASS BAND (FRANCE)

LOS FUGITIVOS (Ciudad Real)

SUCK DA HEAD (FRANCE)

GOXO TXARANGA (Iruña)

CORNELIUS (FRANCE)

www.haizetara.eus

"Gure iritzia inportantea dela ikasi dut Arartekoan"

ELENE GARCIA GONZALEZ ARARTEKOKO NERABEEN KONTSEILUKO PARTAIDEA
Durangarra hiru urtez aritu da Arartekoaren —Euskadiko Herriaren Defendatzailea—
haurrentzako eta nerabeentzako bulegoan aholkularitza lanetan parte hartzen

Ekaitz Herrera DURANGO

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 20 bat nerabek Arartekoaren haurren eta nerabeen kontseiluan parte hartzen dute, Eusko Jaurlaritzako herritarren defendatzaileari aholkularitza lanak egiten. Nerabeek euren iritzia, kezka eta proposamenak egiten dizkiote Arartekoari, azken horrek Legebiltzarreko alderdi politikoen mahai gainean ipini ditzan eta ordezkari politikoei erabakiak hartzerako orduan kontuan har ditzaten. Elene Garcia Gonzalezek (Durango, 2008) hiru urte egin ditu aholkularitza-foro horretan parte hartzen. Bera izan da eskualdeko partaide bakarra.

Zein izan da zure betebeharrak hiru urteko aholkularitza lan horretan?
Ez dago betebeharrak edo rol jakinik. Azken finean, kontseilu horretako kideok gure iritzia, gure ikuspegia, eskaini izan dugu hainbat gairen gainean. Arartekoak lanketarako gai bat



Elene García.

ipintzen du urtero. Aurten, adibidez, nerabeen osasun fisikoa lantzen ibili gara. Iaz, nerabeen babesgabetasuna landu genuen, eta nire lehenengo urtean ingurumenagazko kezak. Talde-dinamikak erabilia, partaideok

arlo bakoitzean hobetu beharrekoak identifikatu ditugu. Zer dagoen ondo, zer txarto, indarrean dauden neurrietatik zer hobetuko genukeen eta abar. **Zelakoa izaten da aholkularitza lanetako mekanika?**

Egun osoko hiru topaketa egin izan ditugu urtero. Zapatueta batu izan gara, Bilbon, Gasteizen edo Donostian. Bilera horietariko bat berezia izaten da, aste-buru osoko iraupena izaten du eta. Egonaldi horietan, etenik barik landu dugu aztergai bakoitza. Egonaldi horietariko bat izan da, hain zuzen ere, Arartekoagaz partekatutako esperientziarik gogoangarriena. Behin, nerabeen babesgabetasuna aztertzeko egonaldia egin genuen Espejon (Araba), eta harrera familietako 30 adin txikikogaz batu ginen. 30 nerabeak euren bizi esperientziak kontatzen hasi ziren eta oso esperientzia gogorra izan zen haiei entzutea. Batzuek esan zuten amak abandonatu zituztela, beste batzuek aitak alkoholismo arazoak zituela eta etxean egotea jasangaitza zitzaiela. Gero, euren aurrez aurre berbetan hasi ginenean, ikusi genuen oso pertsona onak zirela. "Zelan egin daiteke aurrera hori guzti hori bizi izan eta gero?" galdetzen genion geure buruari.

Esperientzia honen aurreko Elene eta gaur egungoa asko aldatu dira?
Askok aldatu naiz. Askok helduegoa izaten lagundu dit. Batetik, nire inguruan dauden arazoei buruz kontzientzia hartzen lagundu dit. Espejoko egonaldiak, esaterako, pribilegioei buruz hausnartzera eramanez nau, eta nire oraingo izaera sozialagoa dela iruditzen zait. Bestetik, ne-

rabean iritzia inportantea dela ikasi dut, aintzat hartua dela eta baliagarria dela. Bestalde, terminologia berria eta azalpenak hobeto ematen ikasi dut. Gainera, lagun mordoa egin dut.

Zuen proposamenak legebiltzarreko alderdi politikoen jarreran edo erabaki politikoetan islatu direla igarri duzu?

Islatu ez dakit hainbeste islatu diren, baina egin dugun lana oso inportantea dela iruditzen zait. Izan ere, Arartekoak Legebiltzarrera eramaten ditu guk jasotako gaiak, eta gure interpretazioa zein den jakinarazten die alderdi politikoei. Orain ez bada ere, aurrerago gure iritzia erabaki politikoetan aintzat hartua izango den itxaropena dut.

Beste nerabeen batentzako moduko esperientzia gomendagarria iruditzen zaizu?

Bai, esperientzia gomendagarria da, baina kontuan hartu behar da ez dela aproposa mundu guztientzat. Ezin duzu aholkularitza lan hau katzondeo modura hartu. Honek guzti honek konpromisoa eta lana eskatzen ditu, baina, hala ere, ondo pasatzen duzu.

"ESPERIENTZIA HONEK PRIBILEGIOEI BURUZ HAUSNARTZERA ERAMAN NAU"

Gazte Eguna Otamotzenan, uda sasoiari ongietorria emateko

Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek egun osoko topaketa egingo dute datorren zapatuan, ekainak 21

Ekaitz Herrera DURANGO

Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek Udako Gazte Eguna ospatuko dute datorren zapatuan. Otamotzenan batuko dira, eguerdian. Kamisetak banatuko dituzte lehenengo, eta taldeko fanzinea aurkeztuko dute gero. 12:30ean plastilina txapelketa izango dute, eta 14:30ean bazkaria. 17:00etan frontenis txapelketako finalak jokatu dituzte Kurutzia iganak. 19:00etan poteoa egingo dute, txaranga lagun. 21:00etan kontzertuak izango dituzte: Gozzue eta Kiliki.



Berbaldi bat Otamotzenan. K.G.

Alkoholaren kontsumoa arautuko dute Durangoko gune publikoetan

Araudia idazten hasi aurretik, udalak kontsulta publikoa egingo du, herritarren ekarpenak eta iritzia jasotzeko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak ordenantza berri bat egingo du udalerriko eremu publikoetan alkoholaren kontsumoa arautzeko. Hori dela eta, herritarrek galdeketa batean parte hartzea deitu ditu. Kontsulta publikoaren helburua gaiari buruzko iritzia eta ekarpenak jasotzea dela esan du udalak, eta azpimarratu du arau berriaren asmo nagusia "herritarrei eragozpenik ez eragitea, ordena publikoa zaintzea, osasuna babestea eta eremu publikoak garbi eta seguru matentzea"



Kale-zurrutaren hondakinak Durangon.

izango dela. Era berean, ordenantza berriak "herritarren elkarbizitza eta ongizatea hobetzeko beharizanari" erantzuten diola nabarmendu dute.

Arau berriaren bitartez, udalak hainbat arazo "konpondu" gura du. Honako hauek zerrendatu ditu garrantzitsuenen artean: bide publikoan alkohola baimenik barik kontsumitzeak sortu ditzakeen eragozpenak, zarata, zikinkeria, bizilagunen atsedenen nahasmendua eta hiri-ingurunearen narriadura. Udalak berretsi duenez, "beharrak da alkohola kontsumitzea arauak eta zigorrak argi arautuko dituen esparru bat ezartzea". Durangarrek ekainaren 17ra arteko epea izango dute parte hartzeko. Erantzunak zein ekarpenak *partehartu.durango.eus* atarian egin daitezke.



Munduko Arrozen 2022ko jaialdia Jesuitak ikastetxean ospatu zuten. MUNDUKO ARROZAK

Arroza aitzakia, gizarte aniztasuna goraipatzeko

Munduko Arrozen jaialdia dela eta, Landako Gunea kultura aniztasuna aldarrikatzeko gune bihurtuko da zapatuan. Ekintzak 11:00etan hasiko dira. Durangoko 20 bat elkarteak parte hartuko dute, eta, guztira, 800 bat herritar batzea dute helburu

Ekaitz Herrera DURANGO

Munduko Arrozen jaialdia bere 17. edizioa ailegatuko da, zapatuan, Durangon. Herriko 20 elkarteren parte hartzeari eskerrak, Landako Gunea aniztasuna, auzo-bizitza eta gozamen kolektiboa aldarrikatzeko gune bihurtuko da 11:00etan. Antolatzaileek 800 bat lagun batzea gura dute, eta tailerrak, ekitaldi musikalak eta informazio eremuak ipiniko dituzte, hori horrela izan dadin. Aurtengo edizioak Durangotik haragoko komunitateak saretzeko balioko duela iragarri dute antolatzaileek. Besteak beste, Bilboko San Frantzisko, Otxarkoaga eta Uretamendi auzoko kideekin eta Gasteizko Zarama-

gako auzotarrekin batuko ditu durangarrak. Era berean, baita Getxoko, Gernikako, Errenteriko, Irungo eta Burlatako herritarrekin batzeko ere. Lau helburu zehatz markatu dituzte sare-tze horri begira: kaleak berriro ere gozamen kolektiborako berreskuratzea, herritarren parte-hartzea sustatzea, kulturartekotasuna ospatzea eta hainbat euskal hiritako auzoak lotzea. Horretarako, "borroka komunak eta aldarrikapenak handiagotzeko" lan egingo dute, eta "auzoetako egunerokotasuneko arazoei aurre egiteko irtenbideak topatu". Munduko Arrozen 17. edizio hau Zubiguneak tailer parte hartzaileak antolatu du. Egitasmoaren

atzean, Zabaltzen-Sartuko kideak, Durangoko elkarteak eta norbanakoak ere badaude, eta baita Dendak Bai, Cafés Baqué eta udala ere.

Egitaraua prest

Jaialdiaren aurkezpena 11:00etan egingo dute, eta, hori amaitzea-gaz batera, Durangoko hainbat elkarteak (Inurri, Larrasoloeta xake taldea eta Durangaldeko Artisten Elkartea) tailerrak egingo dituzte. 12:00etan Ghanako txaranga egongo da, eta 13:00etan Batudamak. 14:30ean herri bazkaria egingo dute, eta horren ondoren kafea eta bizkotxoak izango dituzte. DJ batek emango dio amaiera jaialdiari.

Durangoko aurrekontuan zer proiektu ipini erabakitzeke ordua

Durangoko herritarrek ekainaren 30era arteko epea dute aurrekontu parte hartzailean botoa emateko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak bozketa epea zabaldu du, herritarrek 2026ko udal aurrekontuko 600.000 euro zelan erabili erabakitzeke. Proposamen guztiak *partehartu.durango.eus* atarian ipini dituzte kontsultagai, eta herritarrek hilaren 30era arteko epea izango dute botoa emateko.

Proposamenak udalerriko sei eremutan banatuta daudenez, herritar bakoitzak sei boto eman ahal izango ditu, bat gune bakoitzeko. Herritarrek egingako proposamenen artean honako hauek daude, besteak beste: San Rokeko eremuari dagokionez, Otamotzenan komun publikoa ipintzea edo Errotaritzuengan ur-txorrotak ipintzea; San Faustoa aldean, bizikletentzako aparkaleku estalia edo kirol kantxak estaltzea; Landakon, tenis-pistako zoladura aldatzea edo Ga-

llanda kalean txintxaunak ipintzea; Madalengan, bidegorria Muruetatorreraino zabaltzea edo estolderia garbiketarako egitea; Erdialdean, Montevideoko bide segurtasuna hobetzea edo Juan Itziarren irisgarritasuna bermatzeko lanak egitea. Azkenik, Tabiran, autokarabanentzako gunea atontzea edo Intxaurrenondon erabilera anitzeko kirol-kantxa ipintzeko proposamenak daude. Horiek denak proposamenetarikoz batzuk baino ez dira. Guztiak kontsultatu gura dituenak Durangoko Udalaren parte hartze atarira jo dezake. Asier Perugorria partaidetza zinegotziaren berbetan, "garrantzitsua" da bizilagunek "euren ahotsa" izatea. Aukeraketa prozesuan parte hartzea eta bozkatzera deitu ditu herritarrek, "Durango hobea eraikitzen jarraitzeko".

LABUR-LABUR

349 inskripzio etxebizitza tasatuetan

Mireia Elkoroiribe alkateak jakinarazi duenez, 349 durangarrek baino gehiagok eman dute izena Birjinosteko 22 udal etxebizitza tasatuetako zozketan parte hartzeko.

Durangoko komertzioen errolda, martxan

Durangoko Udalak aurrez aurreko bisitak hasiko ditu herriko establezimenduetan, herriko jarduera eta instalazio komertzialen errolda egiteko.

Sanfaustoetako nagusien bazkaria prestatzen

Durangoko jaietako nagusien bazkariak 800 bazkaltiar izango ditu, eta ez 650. Cateringa lizitaziora aterata dute.

"Durangon tortura pairatu duten pertsona guztiak" saretzeko deia

E.H. DURANGO

Euskal Herriko Torturatuen Sarea plataformak informazio gune bat ipini du Durangon, udalerrian "tortura pairatu duten pertsona guztiak sare horren parte" egitera deitzeko. Komentukalean egokitu dute gune hori, LAB sindikatuen egoitzan. Bertan, "Durangoko torturatuei karpetak helarazteko, banaturiko karpetak

jasotzeko, zalantzak argitzeko eta beharrezko laguntza eskaintzeko" zerbitzua emango dute. Informazio gunea ekainaren 19an, 26an eta uztailaren 3an egongo da zabalik, 17:30etik 19:30era. Torturatuen Sareak otsailean egin zuen bere sorrera batzarra, Donostiako Kursaallean. Tortura jasandako 900 euskal herritar batu ziren han. Kriminologiaren Euskal Institutuaren datuen arabera, 1960tik 2014ra artean Hego Euskal Herriko 5.300 herritarrek baino gehiagok jasan zuten tortura.

Garaiko historia eta kontu zaharrak ezagutzeko ibilbidea

Trumoitte elkarteak 'Garai ezagutuz' egitasmoaren beste saio bat egingo du, domekan, 10:30ean

Ekaitz Herrera GARAI

Urrutira joaten ibili barik, Trumoitte elkarteak kideek plan apropos-aproposa prestatu dute domekarako: "Herriko historia eta kontu zaharrak" ezagutarazteko ibilbidea. 10:30ean ha-

sita, herrigunean zehar ibilaldia egingo dute, plazatik abiatuta. Iturri zaharra bisitatuko dute lehenengo, eta udaletxea gero, azken horrek gordetzen dituen ezaugarriak ezagutzeko. Besteak beste, txuzoa, udalba-

tza aretoa, herriko baserri izenekin atondutako eserlekuak eta argazki zaharrak ezagutuko dituzte. Behin horiek bisitatuta, frontoi aldera egingo dute, Zubiaurretarren historia ezagutzeko. Mokadutxo bat hartuta emango diote amaiera egunari, Otea Loran elkartean. Bertan, behinolako eskola zelakoa izan zen azalduko dute. Antolatzaileek iragarri dutenez, ume, gazte zein heldu, edozeinek partekatzekeko ibilbidea izango da.

'Abañoko kantariak' aurkeztuko dute zapatuan

'Abañoko kantariak' abesbatzaren aurkezpen ekitaldia ekainaren 14an izango da, 12:00etan, Errota Kultur Etxean. Udalak bultzatutako ahots tailerren sortu da taldea

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Saioa Bañales zuzendariaren gidaritzapean, hogeit bat lagun elkartu, eta, ilusioz eta konpromiso, abesbatza sortu dute. Ohar bidez azaldu dutenez, kantu saioetan arnasketari, erritmoari eta afinaziori buruzko hainbat teknika ikasi dute, baina, batez ere, elkartasun, gozamen eta ikaskuntza esperientzia partekatu bat bizi izan dute.

"Bereziki hunkitzen nau ikus-teak tailer bat elkartzeko, sortzeko eta ikasteko gune bihurtu dela. Prozesu honetan ipini dituen lana eta sentsibiltatea eskertu gura dizkiot Saioari, eta parte-hartzaile guztiak ere eskertu gura ditut, ahotsa eta bihotza ipini dizkiotelako dagoeneko



'Abañoko kantariak' adinekoen abesbatza.

herri osoarena den abesbatza honi", adierazi du Edurne Maguregi Gizarte Ongizateko zinegotziak.

Abadiñoko Udalak aurkezpena joateko gonbit egin die herriar guztiei: "Abeslari talde bat

izateaz gainera, proiektuak ahots kolektibo bat, poza, indarra eta parte-hartzea bultzatzen ditu", nabarmendu du Maguregik. Aurkezpenerako gonbidapenak doan eskuratu daitezke, Errotan eta Mediatekan.

Mallabian Zubitegi erreka berreskuratzen dabilta

Zubitegi erreka Oiz mendiaren barrenean jaiotzen da, eta Mallabia eta Ermua zeharkatzen ditu. Bigarren faseko lanetarako, 192.406 euro erabiliko dituzte



Zubitegi errekan egiten ari diren obrak. MALLABIKO UDALA

M.Z. MALLABIA

2021etik hona, Uraren Euskal Agentzia eta Mallabiko Udala Zubitegi erreka ibilgu naturala berreskuratzen dabilta. Lehenengo fasean, aire zabalean beste ibilgu bat zabaldu zuten

hormigoizko galeriaren paraleloan, ura berriro ere jatorrizko ibilgutik pasatzeko asmoz. Aldi berean, lurpeko kanala mantendu zuten, etorkizunean uholde-rik balego haiek kudeatzeko irtenbide legez.

Orain, Zubitegi erreka ibilgu berriak ur goraldiei aurre egiteko duen gaitasuna egiaztatuta eta gero, eta lurpeko kanala beharrezkoa ez dela frogatuta, ingurunea guztiz berreskuratze-lanei ekin diote Mallabian. Udalak jakinarazi duenez, bigarren fase honek egun dagoen lur azpiko galeria guztiz eraistea eta Zubitegi erreka ezkerreko ingurunea ingurumen-irizpideen arabera berreskuratzea jasotzen du.

"Zubitegi erreka berreskuratzeak gure herriko biodibertsitateari mesede egiteaz gainera, garapen jasangarrirako beste urrats bat ere bada, ingurunearen errespetua ardatz hartuta", adierazi du Igor Agirre alkateak.



Liburu Gazteako saria, Abadiñora

M.Z. ABADIÑO

Ekainaren 3an, Bilboko Azkuna Zentroan Liburu Gaztea booktrailer-lehiaketaren sari banaketa egin zuten, eta Abadiño BHIko ikasleak izan ziren irabazleak. Institutuko Naroa Ogando euskara irakasleak lehiaketarako egindako lana goraipatu du ikastetxeko zuzendariak.

Gaur San Antonio eguna Urkiolan, eta domekan errepetizioa

M.Z. ABADIÑO

Gaur, ekainak 13, San Antonio eguna ospatuko dute Urkiolan. 10:00etatik 15:00etara ganadu eta baserriko produktuen azoka egongo da, eta 11:00etatik 14:00etara trikitilariak eta bertsolariak ari-tuko dira. 10:00etatik 13:00etara bitartean, orduero egongo da meza. Ekainaren 15a *Errepetiziño domeka* izango da. 10:00etatik 15:00eta-

ra azoka egongo da, 12:45ean herri kirolak, eta 16:30ean erromeria Aiko taldearen eskutik.

Egun bietan doako autobus zerbitzua egongo da Abadiñotik zein Durangotik Urkiolara. Abadiñoko autobusa 09:00etan, 10:00etan eta 11:00etan irtengo da, Zelaletako autobus geltokitik, eta geldialdia egingo du Traña-Matienan. Buel-tarako autobusa 17:00etan eta 18:00etan izango da. Durangokoa Landakotik irtengo da. Hau 10:00etatik 19:00etara etenik ibiliko da joan-etorrian.

Gazte Eguna ospatuko dute bihar, ekainak 14, Mallabian

M.Z. MALLABIA

Bihar, ekainak 14, Mallabiko VII. Gazte Eguna ospatuko dute. 11:30ean emango diote hasiera egunari, pala partiduak jokatuta. Eskolako frontoian semifinalak eta finalak jokatuko dituzte.

15:00etan elizpean txupinazoa jaurti, eta herriko gazteak bazkaritarako batuko direla iragarri dute antolatzaileek. Eta, bazkalostean, bingo musikatua egongo da. 18:30ean karpo-teoari ekingo diote, eta 21:00etan Orrues eta Gorrotoa Gorroto taldeen kontzertuek giro-tuko dute arratsaldea. DJ Totozer-en saioagaz amaituko dute eguna, soziedadean.

Asteon Abadiñon hiru katakume hilda agertu direla salatu dute

M.Z. ABADIÑO

Astelehenean Abadiñon, Arran-kurri inguruan, hiru katakume hilda agertu zirela salatu du herriar batek. "Egoera hau izugarria da eta txarrena da ez dela lehenengo aldia. Ohikoa da", salatu dute Abadiñoko Kalekatuak elkarteko kideek. Bestalde, udalari esku hartzeko eta esterilizazio kanpainak bultzatzeko eskatu diote. "Egoera honi emaiara eman behar zaio. Hiru urte daramatzagu udalagaz batzartzen. Kanpainak bultzatu eta laguntzak emateko eskatzen diegu. Katu kolonia itzelak daude eta hainbat dei izaten dugu egunero. Egoera jasanezina da, eta zeozer egin behar da", gaineratu dute.

OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



HORTZ-KLINIKA
Konfiguratzaile hortz klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulegia:
Astelohenetik ostiralerara: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango. Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Salo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskumak
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

**Psikologia**



Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfidantza sendotzeko •
- Estresa kudeatzeko •
- Zure harremanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

**Optometria**
PSE: 162/13



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEKUIAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

Txintxirriko ikasle bat ikastetxez aldatzea salatu dute

Elorrioko Txintxirri Ikastolako komunitateak agerraldia egin du Hezkuntza Sailak bertako ikasle bat ikastetxez aldatu gura duela salatzeko; Elorrioko alkate Julene Lazkano eta Alazne Mendizabal zinegotzia ere batu dira agerraldira

Aritz Maldonado ELORRIO

Elorrioko Txintxirri Ikastolako komunitateak agerraldia egin du Hezkuntza Sailak bertako ikasle bat ikastetxez aldatzea gura duela salatzeko. "Ez dugu onartzen Hezkuntza Sailak ume zaurgarri bat beste ikastetxe batera bidali gura izatea. Erabaki horrek ez du Elorrioko erreallitatea aintzat hartzen eta ez du inongo arazorik konpontzen; are gehiago, sortu egiten du", esan zuen Egoitz Lizundia Txintxirriko gurasoak agerraldian. "Elorrion bideratu gura dituen lekualdaketak bertan behera uzteko eskatzen diogu Hezkuntza Sailari", gehitu du Andrea Aginagalde gurasoak. Hain zuzen ere, arazoaren oinarria Hezkuntza Sailak orain hiru urte ezarritako matrikulazio irizpideak direla azaldu zuten agerraldian. "Matrikulak egiteagaz batera, zaurgarritasuna neurtzen hasi zenetik, gure Ikastola herriko batez bestekoan egon da, lehenengo urte bietan behintzat. Baina aurten zaurgarritasun



Agerraldiko argazkia.

maila handiagoa ei da", gehitu du Aginagalde. Erabakia eta neurriaren eragina ere salatu dituzte, eta Ikastolak berak zein ikaslearen familiak alegazioak aurkeztu dizkiote Hezkuntza Sailari, eta helegitea aurkeztu dute Jaurilaritzan. "Ez gabiltza

zenbaki hutsei buruz, kaltetutakoa ume bat da, familia oso bat", nabarmendu dute. Agerraldian dozenaka herritarrek parte hartu dute; tartean, Elorrioko alkate Julene Lazkanok eta Alazne Mendizabal zinegotziak.



EMEko kideak eta Julene Lazkano alkatea. ELORRIOKO UDALA

Merkataritza bonuen kanpaina "guztiz arrakastatsua" izan da

Elorrioko Udalaren esanetan, 'Elorrixon dendarik denda' kanpaina oso arrakastatsua izan da, "beste behin ere"

A. M. ELORRIO

Komertzio txikiei laguntzeko helburuagaz sorturiko *Elorrixon dendarik denda* kanpaina "guztiz arrakastatsua" izan dela azaldu du Elorrioko Udalak ohar baten bitartez. Aurten, 27 merkatarik parte hartu dute maiatzeko bonu kanpainan, eta udalak ia 2.000 bonu banatu ditu horien artean. Herritarrek hamar euro aurreztu dituzte 30 euroko erosketa bakoitzagaitik. "Kanpainak iraun duen artean, 1.973 bonu trukatu dira guztira. Hortaz, Elorrioko Udalak 19.730 eurogaz lagundu dio kanpainari aurten, komer-

tzioei saldutako bonu bakoitzeko hamar euro emanda", azaldu dute ohar baten bitartez. "Komertzio txikiei laguntzeko helburua duen kanpaina honegaz, udalak tokiko komertzioa bultzatu gura du", gehitu dute.

Euskaraz ikasteko laguntzak

Udalak azaldu du euskararen erabilera indartzeko diru laguntza deialdi bi egin dituela. Bata helduentzako euskara ikastaroetako matrikulazioa ordaintzeko da, eta bestea gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gaingitu dutenentzat da.

Aritz Labrador, Zornotzako danborradaren zuzendari berria

Musika Bandako eta haurren danborradako zuzendaria izateaz gainera, aurten ardura berria izango du jaietan



Aritz Labrador eta Jou Gonzalez.

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Jou Gonzalezen lekukoa hartuta, Aritz Labrador da Zornotzako danborradaren zuzendari berria; Labrador Zornotzako Musika Bandako eta haurren danborradako zuzendaria ere bada. Gogotsu heldu dio erronka berriari. "Danborradak bide oparoa egin du urteotan, eta oraindino hazteko aukera duela esango nuke. Erronka nagusietariko bat gazteak erakartzea da, eta hor haurren danborrada da gakoa", esan du Labradorrek. Jou Gonzalezek "pozik eta danborradaren zuzendaritza eskurik onenetan utzita" amaituko du hamar urte eskaseko ibilbidea. "Erabakia penagaz hartu dut, baina erantzukizunetik. Musikari profesionala naiz eta lana eta etxeko ardurak bateragarri egitea geroago eta gatzagoa egiten zitzaidan", gaineratu du Gonzalezek.

Jaietako lehiaketetarako izen ematea zabalik 22ra arte

San Pedro eta Santa Isabel jaietako lehiaketa gastronomikoetan hilaren 22ra arte eman daiteke izena

A. M. BERRIZ

Berrizen hasi dira motorrak berotzen San Pedro eta Santa Isabel jaietarako. Aste honetan, urteroko lehiaketa gastronomikoetan parte hartzeko izen ematea zabaldu dute. Paella lehiaketa ekainaren 28an izango da, eta tortilla lehiaketa uztailaren 2an. Bieta-rako izen ematea ekainaren 22ra arte egongo da zabalik. Berrizko Udalak esan du eurek ipiniko dituztela mahaiak eta aulkiak, baina gogoratu dute kuadrillek izena eman behar dutela parte hartu ahal izateko. Berrizko Uda-

laren webgunean dauden lotura eta QR kodeen bitartez eman daiteke izena.

Kontzertuak txosnetan

Bestalde, txosna batzordeak jaietako egitaraua iragarri du. Besteak beste, Gailu, Meison, Nekktar eta Mi Buenaventura taldeek kontzertuak emango dituzte txosnagunean. Horrez gainera, bertso saioa eta ohiko moztorro jaitsiera ere egongo dira. Ekainaren 27an hasi eta uztailaren 2ra arte ospatuko dituzte jaiak Berrizko txosnagunean.

Okm: batzen gaituen distantzia

anboto
kide

BERRIA!

BED 'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia
eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atseden sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
 - %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audilogian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasolan jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100 €ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100 €tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua 20 €-tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-goazarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100 €ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100 €tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandiko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5 eko deskontua erosketen guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

EKAINEKO ZOZKETAK



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Mendexa Abentura Parkerako bost sarrera bikoitz.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Argiterian jarduketak handitzeko proposamenak 72 boto batu ditu. IURRETAKO UDALA

Argiteria publikoa hobetzeko proiektua landuko dute Iurretan

2025eko aurrekontu parte hartzaileetatik gauzatuko dute proiektua; udalak 50.000 euro erabiliko ditu lanetarako

A. Basauri IURRETA

Herriko argiteria modernizatzeko eta hobetzeko neurriak hartzea. Proposamen horretxek batu du botorik gehien Iurretako 2025eko aurrekontu parte hartzaileetan: 72 boto, hain zuzen ere. Hartara, udalak argiteria publikoa hobetzeko proiektua gauzatzea erabaki du, argiteriaren efizientzia eta kalitatean aurrera egitea helburu hartuta.

Aurten, 160 lagunek parte hartu dute aurrekontu parte hartzaileen bozketa fasean. Martxoan zehar jasotako 220 proposamenetatik orduan, 123 lagunek

parte hartu zuten- Iurretako Udalak zortzi proiektu aukeratu zituen, bideragarritasun teknikoa, kostua eta udalaren helburu estrategikoak kontuan hartuta. Iurretarrekin azken proposamen horien artean bozkatu behar izan dute, maiatzaren 12tik 25era bitartean. Udal arduradunek jakinarazi dutenez, aukeratutako proposamenak "segurtasunean eta iraunkortasunean langutzeaz gainera, herriar guztiei egingo die mesede". Udalak 50.000 euroko diru poltsa lotu du aurrekontu parte hartzaileetarako.



Kintoen familia argazkia atera zuten plazan.

1959ko kintoak batu dira Iurretan

M.Z. IURRETA


Iurretako 1959ko kintoak bazkaritarako elkartu ziren joan zen zapatuan. Eguraldia lagun izan zuten eta egun ederra pasatzeko aukera izan zuten. Kinto bazkarian parte hartu zuten 24 lagunek argazkia atera zuten Aita San Migel plazan.

Hezkuntzarako diru laguntzak eskatzeko aukera dute Iurretan

A.B. IURRETA

Aurten ere, Iurretako Udalak diru laguntzak emango ditu haurtzaindegitik DBHko 4. mailara arte eskolatutako seme-alaben hezkuntza-gastu orokorrak zati batean ordaintzeko. Udalak 8.500 euro gorde ditu 2024/2025 ikasturteko laguntzetarako, eta eskaria egiteko epea ekainaren 24an amaitzen da.

Eskaera bakarra tramitatu daiteke, HAZen edo udaleko webgunean. Iurretan erroldatuta egon behar da, iazko urtarilaren 1eko antzinatasunagaz, eta eskaerazaleak eta ardurapean dituzten eskolatutako seme-alaba edo adin txikikoak bizileku berean erroldatuta egon behar dira. Familia-unitatearen errentaren, seme-alaba edo ardurapeko adingabeen ikasketa mailaren eta kide kopuruaren arabera zehaztuko da laguntza: Haurreskola (45 euro), HH (45 euro), LH osoa eta DBHko 1. eta 2. maila (45 euro), eta DBHko 3. eta 4. maila (75 euro).



Argiteria aldatzen. OTXANDIOKO UDALA

Kale argiteria aldatu dute Otxandion, efizientzia hobetzeko

A.B. OTXANDIO

Kale argiteria osoa aldatu dute Otxandion, efizientzia energetikoa hobetzeko helburuagaz. Udalak herrian dauden 143 farola boladunak kendu ditu, eta, horien ordean, argi gehiago emanango duten farola berriak ipini. Lanek 98.537 euroko inbertsioa eskatu dute; horri aurre egiteko, 64.000 euroko laguntza jaso dute Bizkaiko Aldunditik.

Mañaria Albokan Rolla jaia ospatuko dute bihar

Aurtengo egitarauaren barruan, Les Lullies, Reder eta Sermond's taldeek kontzertua emango dute zapatuan, 20:00etan hasita. Ondoren, KSKA Seletorak ipiniko du musika. Egun osoan zehar askotariko ekimenak egongo dira Mañarian

J. Derteano MAÑARIA

Zapatu honetan Albokan Rolla jaiaren hirugarren aldia egingo dute Mañarian. Herriko hainbat elkarte eta eragileren laguntzagaz, Kafraga elkarteak egun osoan jaia antolatu du, ekimen askokoa.

10:30ean hasiko dute eguna, kalejiran, albokarien eta trikitilarien laguntzagaz. Kalerik kale ibiliko dira jai-giroa ipintzen. 13:00etan plaza inguruan batuko dira eta herri kirol erakustaldia hasiko dute: Jon Gisasola, Ioritz Gisasola, Karmele Gisasola eta Goizeder Abendibar. Herri kirolen ondoren, mañariarrak herri bazkarian batuko dira.

Pilota eta musika

Herriko pala eta pilota partiduko finalekin ekingo diote arratsaldari, 17:00etan. Hileetan kanporaketak jokatzearitu dira hainbat bikoteren artean, eta zapatuan aurtengo



Sermond's taldea bueltan da, sei urteko geldialdiaren ondoren.

txapeldunak erabakiko dituzte Mañariko pilotalekuan.

Musika kontzertuekin amaituko dute Albokan Rolla jaia. Kontzertuak 20:00etan hasiko dira. Aurten hiru taldek osatuko dute musika menua: Les Lullies talde frantziarrak eta

Durangaldeko Reder eta Sermond's taldeek. Hirurek punk-rock eta rock doinuak eraman go dituzte Mañarira. Kontzertu hauen ondoren, jai-giroak aurrera jarraituko du gau erditik aurrera, KSKA Seletorak ipinitako musikagaz.



Bakarriketa saioa Arrazolako Amillena Bentan izango da.

Plazerkekeriak zikloaren amaiera, gaurko bakarriketaz

Laura Penagosen saioa zikloko azkena izango da Amillenaren

J.D. ATXONDO

Amillenaren bueltan batzen diren emakume talde batek Plazerkekeriak ekimena hasi zuen iaz. Harrezkero, askotariko kultur ekimenen bitartez, emakume eta identitate disidentedun sortzaileen kultur plaza bihurtu dute Amillena. Gaur bertan, egitasmo horren barruko saio bat egongo da. Gaurkoa, gainera, berezia da Plazerkekeriak zikloko azkena izango delako. Oraingoz ez duela jarraipenik izango esan dute antolatzaileek. Saldutako bonuen artean zozketat bat egongo dela eta autoges-

tiorako bonu laguntzak salduko dituztela ere aurreratatu dute.

Bakarriketa

Gaur, barikua, Laura Penagosen *Putaren bakarriketak* bakarriketa egongo da ikusgai, 21:00etan, Amillena Bentan. Obran, emakume bat erotxe bateko gela batean dago bakarrik, ikusten ez den doktore batez berbetan. Emakumea prostituta da eta elkarrizketan bere istorioa azalduko du. Bakarriketak hainbat gai azaleratzen du; esate baterako, sexualitatea, bortizkeria, klasismoa eta feminismoa.

Pelax, Zoe Igartiburu eta bertso saioa Izurtzako kultur asteen

Kultur astearen bigarren aldia ekainaren 18an hasiko da, berbalde batez, eta 23an amaitu, San Joan sua piztuta

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak, Herriko Tabernak eta Eskuko Racing elkarteak kultur astearen bigarren aldia antolatu dute ekainaren 18tik 23rako.

Ekainaren 18an, 19:00etan, *Izar Gorri*, *mamuon betiko argi* izeneko berbaldea emango dute erabilera anitzeko lokalean. Euskal espedizio batek eskalada bide berri bat zabaltu zuen iaz Pakistango Mum Brakk II mendian, eta orduko abenturak izango dituzte berbagai. Hurrengo egunean, egunean, Iban

Gorritik bidaia-hitzaldia eman go du erabilera anitzeko lokalean, 19:00etan. Bere bidaiei buruzko erakusketa ere ikusgai izango da herriko tabernan, ekainaren 16tik 26ra.

Barikuko protagonista musika izango da. Pelax musikariak kontzertua emango du Herriko tabernako terrazan, 19:00etan.

Zapatua auto klasikoaren topaketagaz hasiko dute, aparkalekuan. 19:00etan, Ganso & Cia konpainiaren *Welcome & Sorry* antzezlanak ikusteko parada egongo da udaletxeko plazan. Ekai-

naren 22ko zapatuan, bigarren eskuko azoka egingo dute, 11:00etan, eta, 13:00etan, Karmele Abaitua, Ixone Asategi eta Naroa Jaio bertsolariak bertsoan egingo dute udaletxeko balioit.

KARMELE ABITUAK, IXONE ASATEGIK ETA NAROA JAIOK BERTSO SAIOA EGINGO DUTE HILAREN 22AN

Azkenik, ekainaren 23an, San Joan bezperan, Santo Tomas parkean jaia egingo dute. 19:00etan, Zoe Igartiburu eta Alex G bakarlariak izango dira, eta baita Ji-Kunak txalapartariak ere San Joan sua piztu aurretik.



Pelax musikariak kontzertua emango du ekainaren 20an. DONOSTIA KULTURA



Asun Elorriaga eta Aingeru Mimentza Gerediagako foru zelaian.

"Elkarte zabala da Gerediaga eta lankidetzan jarraituko dugu"

ASUN ELORRIAGA ETA AINGERU MIMENTZA GEREDIAGA ELKARTEA

Gerediagak bere 60. urteurrena ospatuko du zapatuan, entitateari izena ematen dion zelaian. Elkarateak eskualdeko ondarea ikertzen eta zabaltzen jarraituko du

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

60 urte dira diktadura frankistaren urte ilunetan Durangaldeko ondareaz, kulturaz eta historiak kezkatutako herritar talde batek elkarre bat sortzea erabaki zuela. Ongarri gogorrean hasi ziren haziak ereiten, baina etenik bako lanari eskerrak lore eta adar ederak haztea lortu dute hamarkadatik hamarkada. Zapatuan, ekainak 14, behar den moduko ospakizuna egingo dute. 20:00etan, Gerediagako foru zelaian (Abadiño) batuko dira *Izan eta Eragin*

ikuskizuna partekatzeko. Bertara joan ahal izateko, doako autobusa egongo da Traña-Matienatik, Jata lantegiaren pareko galekutik, 18:45etik 19:00etara. Euria egiten badu, urteurren ekitaldia Abadiñoko probalekuan egingo dute. Kasu horretan ez da autobus zerbitzurik egongo.

Aztera begira, zelan sortu zen Gerediaga orain 60 urte?

Asun Elorriaga: Elkartea 1965eko ekainean sortu zen, eta hemen bertan egin zen lehenengo batzarrak, Gerediagan, elizateetako

ordezkarien garai bateko biltokian, beren-beregi. Francoren garaian hori guzti hori ahaztera behartu gintuztenez, lehenengo batzarrak hemen egitea erabaki zen. Gerediaga Elkartea Durangaldeko kultura eta ondarea bultzatzeko sortu zen, baina sasoi hartako testuinguruan bestelako egiturak bultzatzeko ere lan egin zuen, hala nola ikastolen eta baserriarren kooperatibaren sorreran. Gerora, 80ko hamarkadan elkarre ugari sortu zenez, Gerediagak ondarean eta kulturen bakarrik

eragiten jarraituko zuela erabaki zuen.

Aingeru Mimentza: Durangaldean jaiotako eta eskualdea lan esparru duen elkarre txikia izan arren, Gerediaga Elkarateak Eskual Herri osoko eragile eta erakundeekin du lankidetzak, eta aitortza.

A.E.: Horixe da Gerediagaren betiko ispiritua: lankidetzak eta elkarlana. Elkarre zabala gara eta prest gaude edonogaz lan egiteko eta behar duenari aterpea emateko.

Zelan ailegatu zineten Gerediaga Elkartera?

A.E.: Batetik, motibo pertsonalak ditut. Gure aita hemengo zen, Gerediagako baserri batekoa. San Salvador jaietan hona etortzen nintzen gonbidatu, eta gogoratzen dut 14 urte nituela, oraindino Franco bizirik zegoela, Durangoko ikastetxeetan lehiaketa bat egin zela. Galderetarako bat honako hau izan zen: *Non batzen ziren Durangaldeko merinaldeko elizateetako ordezkariak?* Nik ez nekien erantzuna. Momentu hartan konturatu nintzen inork ere ez zidala horri buruzko ezer kontatu. Bestalde, Durangoko Azokaren bueltan sortutakoak oso interesgarri egiten zitzaizkidan, Gabriel Arestiren edo Federico Krutwigen inguruko saioak, adibidez. Halantxik barneratu nintzen hemen, gure herriko kulturaren interesagaitik.

A.M.: Durangoko Azoka, bisita gidatuak eta nire herriko zein eskualdeko historia betidanik interesatu izan zaizkit. Hala ere, Gerediagako zuzendaritzara salto egin eta nire ekarpena egiteko erabakia izurri garaian etorri zen, Gurutzi Arregi etnografoa, Gerediagako lehenengo idazkaria, hil zenean. "Nor zen emakume hau? Zer egin zuen?", hasi nintzen neure buruari galdetzen; eta halantxik, Arregik Durangoko etnografiari buruz egin zuen lana irakurri nuen. Horrek guzti horrek eraginda, Gerediagan nire ekarpena egitea pentsatu nuen, erantzukizun kolektibo batek bultzatuta.

Durangoko Azoka Gerediagaren ikur nagusietarako bat da, baina elkarrearen bestelako egitasmoak ere azpimarratzekoak dira.

A.E.: Antolatu berri ditugun 11 bisita gidatuak, artxibategia, dokumentazio guztia... horrek guzti horrek ez du preziorik. Altxorra da. Memoria historikoaren Garaia artxiboa ere hor dago,

interes handiko argazki funtsa. *Gerediaga.eus* atarian gure lan osoa ikusi daiteke.

A.M.: Horri guzti horri Astola aldizkaria gehituko nioke, Durangaldeko ondarea ikertzeaz eta zabaltzeaz arduratzen den argitalpena. Argazkiek, testuek, iritziek... egundoko kalitatea dute. Askotan esaten dugu Astola aldizkaria Durangaldeko National Geographic dela. Horrez gainera, podcastak egiten eta formatu berrietara egokitzen gabiltza, eta ezin ditugu Durangaldeko Gazte Ikerlarien beka sariketa eta Durangoko Azokako Sormen Beka ahaztu. Halaber, ezin dugu ahaztu hori guzti hori gauzatu ahal izateko Gerediagako lantalde osoak egundoko lana egiten duela: zuzendaritzak, ikerketa taldeak, egiturak, komunikazio arloak...

Zeintzuk dira elkarrearen erronkak?

A.E.: Gaurko gazteriak, adibidez, kultura jasotzeko beste modu batzuk ditu. Horretara hurbildu behar dugu, eta gazteak erakarri. Funtsean, egokitzea da erronka.

A.M.: Kate luze baten modukoa ikusten dut Gerediaga, eta hor Asun eta biok zein Gerediagako lantalde osoa elkarren arteko balaunaldi-katebegia izan gaitzek. Gure helburua ondarea ikertzea, zabaltzea eta zaintzea denez, ibilbide genealogiko horretan beharrezkoa da katebegi berriak sortzea. Momentu honetan ez dago etenaldirako arriskurik, baina belaunaldiak batzea eta berriak bermatzea izan daiteke erronka.

Zapatuan Gerediagako foru zelaian egingo dena iragartzerik bai?

A.M.: Ikuskizun bat izango da, ikus-entzunezkoak, bertsoak, kantua eta antzerkia batuko dituen.

A.E.: Edorta Barruetabeñak sortutako ikuskizuna izango da eta hainbat atal izango du. Itsuak ikuskizun aurrea girotuko du, eta ikuskizunean, Malakiasek batetik eta Onintza Azkaratek, Eider Gallastegik eta Joannah Keenek osatutako hirukoteak bestetik, pieza bana joko dute. Iruri Altzerreka eta Unai Iturriaga bertsoetan izango dira, eta Kariika antzerki taldeko kideek XIX. mendean sortu zelaian egiten ziren eskualdeko batzarrak taularatuko dituzte ohikoa duten umorea lagun. Horrez gainera, eskualdeko elkarrean eta eragilean ahotsa egongo da, eta jakina, baita jan-edana ere.

'Kill Jacki'-ren grabazioa

Catherine Zeta-Jones Prime Vi-deorentzat egiten dabilen *Kill Jackie* telesaila grabatzen ibili dira Urkiolan; joan zen barikuan eta astelehenean egin zituzten grabazioak. ANBOTOk jakin ahal izan duenez, Catherine Zeta-Jones bera ez da egon Urkiolako grabazioetan. Urkiolan egin dutena ez da Euskal Herrian egin duten grabazio bakarra izan.



BARIKUKO GRABAZIOKO ARGAZKIA.

DURANGALDEA ASTEON

Kangrejo jana eta bakailao txapelketa Legañon

BERRIZ Berrizko Legaño auzoan jaiak berreskuratu dituzte, eta egitaraua antolatu dute ekainaren 14rako. Alde batetik, kangrejo jana egingo dute, eta, bestetik, bakailao txapelketa egingo dute, XIII. Jose Ramon Korpion memoriala izango dena. Bakailaoa pil-pilean izango da eta 14:30erako aurkeztu beharko da. Ondoren, herri bazkaria egingo dute. *Reciclador10* musika jartzaileak girotuko du arratsaldea.



50 urteko historia jasotzen duen argazkia

DURANGO Anbotopeko klubaren historiako geratuko den argazkia atera zuten zapatuan. Durangoko saskibaloit taldearen inguruko jendeak bazkaria egin zuen taldearen 50. urteurrena ospatzeko, eta adin desberdinetako lagunak batu ziren. Taldeko argazki batagaz hilezkortu zuten momentua. Bazkaria atzoko eta gaurko jokalarien topagune bihurtu zen eta antolatzaileak gustura daude izan zuen harreragaz.

GUTUNAK

Aurrera egiteko momentua da

MARTIN LOIZATE ETA ANE ABANZABALEGI

DURANGOKO EH BILDU

Hilabete igaro da Euskaraldia amaitu zenetik. Norbanakoen erabilera bultzatzeko dinamikaz harago, euskarak eta euskal hiztunek instituzioen konpromisoa eta politika publikoen beharra dute dituzten traba guztiei aurre egiteko. Adierazle gehienek arabera hizkuntzaren biziberritzearen prozesua geldialdian baitago.

Alde horretatik, kezkaz bizi dugu azkenaldian Durangoko Udala euskararekiko hartzen dabilen jarrera, hainbat izan dire-lako azken bi urteetan Udal Gobernuak euskararen arloan eman dituen atzerapausoak.

Legegintzaldia hasi eta berehala gobernuak Udal Araudi Organikoa aldatu zuen, euskara “*lehen-tasunezko hizkuntza*” izatetik “*gazteleraren maila berean*” jar-tzera pasatuz. Euskararen aldeko

sustapen ekintza positiborik gabe zaila izango da bizi dugun egoerari buelta ematea. Lege aldaketak EAJ, PSE eta PPren botoekin egin zuen aurrera.

Handik urtebetera, euskara teknikariaren lanpostua ezabatzea adostu zuten hiru alderdi horiek, Kulturgintza saileko ardura izango lukeen lanpostuagatik ordezkatzeko asmoarekin. Euskararen aldeko lanak behar duena ez da kudeatzaile profil soil bat, eragiletza eta dinamizazioa egingo dituen baizik. Sei hilabete pasatu dira, eta ordezkorik ez da kontratatu oraindik.

Publikoki gobernu honek euskararekiko konpromisoa daukala dioen arren ekintzek kontrakoa erakusten dute. Legegintzaldi erdira heltzen gabiltzan honetan, euskararen normalizazioaren bidean atzerapausoak emateari utzi eta gaiari dagokion arduraz heltzeko gonbita egiten diogu gobernuari. Horrela bada, bidean aurkituko dugu elkar. Momentuak hala eskatzen du.

POLITIKAN

**HERRIAREN
ESKUBIDEA -
INDEPENDENTEAK**

Sendatzen duten eskuek, urratzen den arima

Atzera begiratuz gero, balkoi horiek ikusten ditut, non euren biziak arriskuan jartzen zituzten sanitarioak txalotzen ziren, ordu amaigabeak ospitale eta egoitze-tan, plastikozko jantziak eta al-koholez edo ozonoz desinfektatuak,... beren dedikazio eta la-guntzagatik aintzatetsiak eta sarituak.

Gaur, heroi horiek beraiek er-lojuaren kontra korrika egiten dute gainezka egindako anbulato-riorietan, gainezka egindako larrialdiak artatzen dituzte, eta, orain, pediatra bat zigortu nahi dute hiltzorian dagoen neskato bati azken orduetan laguntzea-gatik. Noiztik da delitua errukia? Heriotzak ez ditu ordutegiak ulertzen. Nahi duenean iristen da, eta gizatasunez jokatzeko hor egotea da. Osasun-langileen eskuak dira jaiotzean hartzen gaituzten lehenak eta kaleratzen gaituzten azkenak. Enpatiaz eta maitasunez beteriko eskuak. Gure osasun-lan-gileek gizatasuna galtzen duten egunean, gure itxaropena galduko dugu.

Osakidetzak hiltzorian dago murritzketengatik eta pribatizazioengatik. Erakundeen utzikariak jota dago, sendatzen gaituztenak isilik odolusten diren bitartean.

Horregatik kalera atera behar dugu osasun publiko eta kalitatezkoaren alde oihukatzeraz, murritzketarik eta pribatizaziorik gabe. Horregatik, ekainaren 19an Durangon izango gara, merezi dugun osasuna eskatzeko.

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

MOTOR

GENGARIA 2025



ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia

Tel.: 946 202 004

taller.alluitz@vasataldea.eus · www.alluitzmotor.com





Ipini autoa puntuan, eta disfrutatu bidaiaz

Normalean, uda sasoian bidai luzeagoak egin ditugu autoan. Eta bidai seguruago bat izateko, gomendagarria izaten da autoari azterketa txiki bat egitea. Hona hemen zazpi aholku autoa puntuan ipintzeko

Maialen Zuazubiskar GOMENDIOAK

Urte guztian lanean egon eta gero, uda sasoia heldu eta oporretan joateko prest egoten gara herri-tarrak. Askok eta askok, seguru asko, autoz bidaiatuko duzue, eta, horretarako, ezinbestekoa da autoa puntu-puntuan ipintzea. Horretarako, hainbat aholku eman-go dizuegu. Lehenengo eta behin, pneumatikoak zelan dauden begiratu behar dugu. Hau aldiro-aldiro begiratu behar den gauza bat da; izan ere, marrazki gutxi-ko edo pitzatutako pneumatikoek ez dute bermatzen lurzorura ondo heltzea, eta, gainera, balaztatze-distantzia handitzea ekartzen du honek. Gorpilen presioari ere arreta berezia ipini behar zaio, presio desegokiagaz zirkulatzeak higadura goiztiarra eragiten duelako eta eztanda arriskutsuak ekarri ditzakeelako.

Bigarrenik, udako bidaietarako funtsezkoa da auto barruko tenperatura egokia izatea, eta, beraz, garrantzitsua da aire girotuaren sistema ondo dabilela begiratzea. Gainera, gomendagarria da autoa kalean aparkatuta izaten dugunean eguzkitik babestea.

Hirugarren gomendioa autoko balaztak begiratzea da, azken batean hauek geldituko dute-eta ibilgailuaren martxa. Horregaitik, garrantzitsua da balazta-pastillak, diskoak eta balazta-likidoa begiratzea.

Laugarrena, motorraren olioari begiratu behar zaio, lubrikazio onik barik motorra pitzatu egin daiteke eta. Hau hagaxka adierazlea erabilita egin dezakegu.

Bosgarren aholkua argiak begiratzea da. Autoko argi guztiak ondo dabilatzala baieztatzea garrantzitsua da, bereziki gauez bidaiatu behar baduzu.

Seigarrena, haizetako-garbigailuak ondo daudela baieztatu behar da. Gidatzerako orduan, ikuspen ona izatea funtsezkoa da segurtasunez gidatzeko, eta haizetako-garbigailua ondo izateak kristala garbi izaten lagunduko digu.

Zazpigarren eta azken gomendioa, motorraren hozte-sistema ondo dagoela begiratzea da. Horregaitik, bidai bat hasi aurretik, profesional batek erradiadorearen egoera berrikustea komeni da.

Alcamporen URTEURRENA

URTE ERDI BERRI ON!

**Ezagutu gure gasolindegia,
INGURUKO MERKEENA!**

DURANGO. Montorroto industrialdea, 1 ST3 errepidea

Irabazten, ateratzen, zara.

ARRIBIDE

GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com

arribide.com

946 818 381

POL. IND. ARRIANDI, P-1

48215 IURRETA-BIZKAIA

ARRIBIDE

DESGUACES PILASTRA

Fauste auzoa 18, Iurreta
Tel: 946 201 787

Ibilgailuak tratatzeko eta
deskutsatzeko baimendutako
zentroa gara.
Desegiteko ibilgailuak erosten
eta marka guztietako pieza
erabiliak saltzen lan egiten dugu.

Azterketa teknikoan, lau autotik batek baimendutako kutsadura gainditzen du

Industria eta Turismo Ministerioak emandako datuetan oinarrituta, Administrazioaren Erakunde Laguntzaileen Espainiako Elkarrekin Ibilgailuen Azterketa Teknikoen analisia egin eta argitaratu du. Diotenez, IATra doazen lau autotik batek baimendutakoa baino gehiago kutsatzen du



Zornotza IAT gunea.

M. Z. AUTOEN AZTERKETA

Administrazioaren Erakunde Laguntzaileen Espainiako Elkarrekin Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren inguruan egin duen azken txostenaren arabera, IAT

estazioetara azterketa teknikoak egitera daramatzaten autoen % 25,7k isurtze kutsatzaileen maila aplikagarriaren mugak gainditzen dituzte; hau da, lau autotik batek baimendutakoa

baino gehiago kutsatzen du. Datu horien arabera, automobilak dira emisio kutsatzaileen atalean akatsik gehien duten ibilgailuak. Gainera, bertan ageri denez, IATra eramaten dituzten ibilgailuen kopuruak gora egin du azken urteotan, eta isurtze kutsatzaileak azterketa teknikoetan ibilgailuak atzera botatzeko bigarren arrazoi bilakatu dira.

Ibilgailuen kutsatze mailara itzulita, autoen atzetik 3.500 kilotik beherako furgonetak eta kamioiak daude, detektatutako akatsen % 17,4gaz. Eta, ondoren, motozikletak eta quadak daude, % 15,4ko akatsekin.

"Datu hauek erakusten dute IAT estazioetan egiten duten lana funtsezkoa dela airearen kutsadurari buruzko araudiak

ezarritako emisio-mugak gainditzen dituzten ibilgailuak identifikatzeko", adierazi du txostenean Guillermo Magazek,

Administrazioaren Erakunde Laguntzaileen Espainiako Elkarrekin Ibilgailuen Artzerketa Teknikoaren gerenteak.



Automobilien mekanika, elektrizitate eta elektronika tailerra

Alcampo merkataritza-gunera
Astola bidea, 16

667 796 234

Ordutegi jarraitua

Larunbatetan
irekitzen dugu



- Bajak izapidetza
- Garabien zerbitzuko bilketak
- Eusko Jaurlaritzako KUDEATZAILE BAIMENDUA
- Gehieneko tasazioa duten autoen salerosketa
- Balio-bizitzaren amaieran deskutsatzeko tratamendua eta ibilgailuen kudeaketa
- Garabi zerbitzua 24 orduan, Euskal Herrian eta inguruetan
- Ordezko pieza erabilien salmenta

Mallabarrena poligonoa 10-12 Mallabia

946 175 490 · 632 812 666 / 632 754 180



Urkioil gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

BI-623, 48213 IZURTZA

BI-623, 48210 OTXANDIO

EuskadiLowCost



- 24 orduz zabalik, autozerbitzu gisa
- Txartel bidezko edo eskudiruzko ordainketa
- Berehalako deskontuak fidelizazio-txartelarekin
- Doako aire eta ur zerbitzua
- Salmenta makinak eta kafe makinak



Euskadi Low Cost-Berriz
Pol.Ind.71, 48240 Eitua, Bizkaia

TAILERREN GIDA



ZUBIMAR AUTO

Mallabiena industrigunea z/g
IURRETA

Tel.: 946 20 35 00

Mantentze-lanak, balaztak, esekidura,
argiak, IAT, homologazioa.
4x4 espezialistak, osagarriak.
Kontzesionario ofiziala mg-rover/
ordezkoak.



AUTO REPARACIONES AMAYA

Arangoitia industrialdea,
IURRETA

Tel.: 946 812 123

Multimarka tailerra.



GARAJE SAN MIGUEL

Dantzari Auzunea, 8 IURRETA

Tel.: 946 811 479 /

628 233 584

Kutxa automatikoen mantenua.
Mekanika orokorrean.
Zerbitzu bizkorra, mantenua,
elektrizitatea, pneumatikoak,
diagnosia, IATaren aurrekoa,
aire egokitua.



CARROCERIAS OLAKUETA

Eitua ind, 47,
BERRIZ

Tel.: 946 824 501

Kolore aldaketa.
Erabateko desmuntatzea.
Era guztietako kolpeen
konponketa.
Karrozerien kolorea aldatzea.
Mekanika guztia.



MOTOS TABIRA

Arzubia indus., 10B pab.,
MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 946 814 068 / 678 459 423

Salmenta,
konponketa,
boutiquea.



GnG ELORRIO

San Agustin, 1
ELORRIO

Tel.: 637 720 071

Zure konfiantzazko
tailer mekanikoa.



NEUMÁTICOS ETXEBARRIA

Uribitarte indus. 6,
MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 946 232 520

Olio aldaketa, pneumatikoak
(marka guztiak), balazta pastillak,
motelgailuak.



TALLERES SERAFIN

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 946 814 870

45 urte baino gehiagoko esperientzia.
Gurpilen lerrokatzea,
olio aldaketa, karrozeria,
gurpilen jartzea, IAT pasatu aurreko
azterketa.

TAILERREN GIDA



AUTOGAIN TALLERES

San Agustin ind., 57- 6.pabilioia,
ELORRIO
Tel.: 946 056 732 /
679 174 367

Txapa.
Pintura.
Pneumatikoak.



AUTO - SERVICIOS NIFA, S.L.

Mallabiena auzoa, 4
IURRETA
Tel.: 946 81 26 04 /
946 81 25 66

Kamioi eta auto konponketa.



AUTO REPARACIONES MALLABIENA

Mallabiena z/g,
IURRETA
Tel.: 946 816 150

Ibilgailu industrialen
konponketa orokorra.



AUTOS ELORRIO 2014 S.L.

Betsaide indutrialdea, 9
ELORRIO
Tel.: 946 583 060

Mekanika orokorrean.
Aukerako ibilgailuen salmenta.
Karrozeria.



GARAJE MIGUEL

Arbizua 10- 1 pab.,
MATIENA -ABADIÑO
Tel.: 946 819 161

Garbiketa, tapizeriak, mekanika,
gurpilak.



KIÑU Pneumatikoak eta osagarriak

Maspe kalea, 26
IURRETA
Tel.: 946 20 01 59

Kristal tindatuak.
Erremolkeetarako engantxeak.
Pneumatikoak.
Llantak.



MOTOS UK RACING

Laubideta, 9
ABADIÑO
Tel.: 846 661 060

18 urte baino gehiagoko
esperientzia du motoen munduan.
Motoen salmenta, tailer mekanikoa,
IAT, ordezkoen hornidura eta
boutique espezializatua ditugu.



URANGA AUTOAK

Goitondo industrialdea
1.pab. - behea,
MALLABIA
Tel.: 943 179 717
WhatsApp: 685 751 848

Ibilgailuen konponketa
eta mantenimendua.



ESAERA ZAHARRA

Bete laukiak dagokion letragaz behean dagoen alfabetoari jarraituta.



LERROEI JARRAITU

Lerroaren gainetik marraztu.




LABIRINTOA

Lotu zapatila bikotea.




PAPIROFLEXIA


1




2




3




4




5




6




7



8



9



TOPATU

Beheko irudian topatu itzazu
ondoko objektu hauek.



Aritz Maldonado DURANGO

Paule Mallagarai durangarrak beste aurrerapauso bat eman du bere ibilbide artistikoan. Urriaren 3tik aurrera, Madrilgo Coliseum antzokian arituko da, Ellaren azalean, Marierrauskinen istorioari buruzko musikal berrian. Stage ekoiztetxearen produkzioa da eta Mallagarai lan egin duen proiekturik handiena da.

Zelan joan zen aurkezpena?

Ekainean jantzitokia prestatzeko lanetan murgilduta gaude. Aldi berean, nire aldetik, materiala prestatzen nabil. Oraindino ez dauzkat berbak gaztelaniazko bertsioan, baina ingelesez bai, eta horiekin nabil lan egiten. Beraz, neure kabuz nabil lanean, nire trebatzaileagaz, kantuko irakasleagaz... Gero, uztail hasieran, argazki eta bideo saioak egingo ditugu, sare sozialetarako eta promoziorako; uztailan testuaren behin betiko bertsioa izango dut eta hori ere landuko dut. Abuztuaren 7an hasiko ditugu entseguak, Madrilén, ekipo osoagaz. Lehenengo hileko entseguak gela batean egingo ditugu, eta gero aretoan bertan hasiko gara entseatzen. Gu heldu orduko, eszenografia muntatuta egoten da eta soinuaren diseinua ere eginda egoten da. Beraz, gu heltzen garenerako, entsegu gela egindako lana aretoan bertan probatu dezakegu. Horrez gainera, estreinaldia baino hilabete lehenago, aurretiko funtzioak egiten ditugu; publikoak ohi baino merkeago erosten ditu sarre-rak, eta emanaldi hauek probak egiteko baliagarriak dira. Orokorrean, emanaldi normal baten modukoa da, osorik eta jarraian egiten dugu, baina publikoak badaki arazo teknikoren bat egonez gero funtzioa geratu egin daitekeela. Urriaren 3an estreinatuko dugu.

Beste musikal batzuetan ere aritu zara. Hau da parte hartu duzun proiekturik handiena?

Aurretik egon naizen proiektuak ere musikal ezagunak izan dira eta ekoiztetxe handiekin lan egin izan dut. *Mamma mia!*, adibidez, mundu guztiak ezagutzen du. Baina, egia esan, Stage ekoiztetxea Espainiako ekoiztetxerik handiena eta ezagunena da. *El rey león* musikala euren da, eta, beraz, bertako lanen batean protagonista izatea Espainian lortu dezakezun gorena da antzerki musikalean. Beraz, bai, inoiz

"Lan eginez eta ausardiaz ametsak betetzea lortzen duzu"

PAULE MALLAGARAI URZAINKI ARTISTA

MUSIKA Paule Mallagarai durangarra Stage ekoizpetxearen ('El Rey León', besteak beste) Marierrauskin musikalaren protagonista izango da; urrian estreinatuko dute



Paule Mallagarai, aurkezpenean.

parte hartu dudana eta hartuko dudana handiena da.

Igartzen da proiektuaren tamaina lan egiterakoan?

Bai, jakina. Adibidez, aurkezpena, protagonistaren paperean, Madrilgo kasinon izan zen, 300 kazetariren aurrean. Goiz osoa elkarrizketak ematen egon nintzen, TVE edo Telecinco kateentzat, besteak beste. Alde handia dago, bai.

Artista legez, zein izan da zuretzat erronkarik handiena?

Rol berri bati ekitea egundoko erronka izaten da beti, baina, kasu honetan, proiektua bera Broadwaytik ez datorrela da erronkarik handiena. Adibidez, ekoiztetxe hau *Aladdin* egiten dabil orain; eurek amaitzen dutenean, geu sartuko gara Coliseum antzokira. Kasu honetan, produktua handik dator, eta hemen errepikatu egiten dute. Eurek esaten dizute zelan egin, eta hemen egiten da. Zuk badakizu pertsona bakoitzak zer egin behar duen, eta, beraz, erraza da entseguen aurretik edo ondoren bakoitzak zer egin behar duen jakitea. Broadwaytik dator. Marierrauskinen kasuan, hainbat

"NIGANDIK SORTUTAKO MARIERRAUSKIN BAT IZANGO DA; EZ DA INORK ERAIKI DUEN ZEOZER"

gauza zerotik sortu da, guztiak ez datoz Broadwaytik. Testua bai, baina koreografia, eszenografia eta dancebreak berriak sortzen ari dira, eta zerotik sortzen ari dira. Hori egundoko erronka da. Azken finean, artista legez, energia mordoa eskaini behar diozu, baina aldi berean oso polita da hori horrela egitea, nigandik sortutako Marierrauskin bat izango delako; ez da inork eraiki duen zoezer errepikatzea. Aldi berean, nahiko beldur ere ematen dit. Inguruan profesional handiak ditut prozesuan zehar laguntzen didatenak, eta horrek lasaitu egiten nau.

50eko hamarkadan oinarritzen den Marierrauskin bat da.

Bai. Ezin dut askoz gehiago aurreratu, baina musikal batean inoiz izan den orkestrarik handiena izango da gurea. Hogei musikari izango ditugu zuzenean. Beti kontatu den istorio bat da, hori ere egia da, baina gauza batzuk aldatu egin dira. Gauza nahikotxo, esango nuke, baina ezin dizut hori baino gehiago aurreratu (barrez). Gizarteak aurrera egin ahala, istorioak ere aldatu behar dira. Orain ezingo genuke, eta ez dugu gura istorio matxista bat kontatu. Marierrauskin honek badaki zer bilatzen duen, eta horren alde lan egiten du. Ez du itxaroten.

Musikan, dantzan eta aktore lanetan trebatu zara. Zertan zabilta erosoan?

Momentu honetan, abesten nabil erosoan. Gainera, oso eroso sentitzen naiz pieza honetako musikagaz; nire abesteko moduagaz bat dator. Bizitzako beste momentu batzuetan dantzan aritu naiz erosoan, baina orain abesten, eta, gainera, topera nabil kantua lantzen. Lanak bere fruituak ematen ditu. Ni Durangotik nator, eta ia inork ere ez nau eza gutzen, baina Marierrauskin papera egingo dut Madrilgo Coliseumean. Lan eginez eta ausardiaz ametsak betetzea lortzen duzu.

Baduzu Euskal Herrira bueltatzeko asmorik?

Oso gustura nago Madrilén. Euskal Herrian orain ez dago musikarik, eta uste dut ez dela egongo. Antzerki musikalean lehenengo mailan egon gura baduzu, Madrilera etorri behar duzu, nahitaez. Baina argi dut hemen-dik urte batzuetara bueltatuko naizela Euskal Herrira, antzerki musikalak nire bizitzan zein leku izango duen jakin barik ere.

Durangoko Uda Giro aurkeztu dute asteon

ANTZERKIA Uda Giro zikloaren edizio berria aurkeztu dute aste honetan; askotariko emanaldiak egongo dira: bertso saioa, kontzertuak, eta familia osoarentzako zein helduentzako ekitaldiak; gaueko umore saioak dira aurtengo nobedadeetariko bat

Aritz Maldonado DURANGO

Beste urte batez, San Agustin kulturgunearen ateak zabaltu eta Durangoko kaleetara atera gura dute bertako programazioa. Horrela, askotariko egitaraua ondu dute Uda Giro zikloaren barruan. "Herririk gehienetan udako jaialdiak antolatzen dituzte. Gure kasuan, baina, San Agustineko egitaraua kalera atera gura dugu udan, Durangoko beste gune batzuetara", azaldu du Arantza Arrazola San Agustineko kudeatzaileak. Ekainaren 22an hasi eta abuztuaren 30era bitartean, hamabi emanaldi egongo dira.

Nobedade nagusien artean, helduentzako Umore Gauen barruan antolatu dituzten emanaldi biak azpimarratu ditu Arrazolak: "Familia osoarentzako ekitaldiak antolatu ditugu, ohikoa dugun moduan, baina oraingoan helduentzako umore saio bi egin gura genituen". Lehenengoa uztailaren 19an izango da, Zanguango konpainiaren *El peor espectáculo*.



'Claudette'. CIE BALANCETOI

culo del mundo. De momento!!!; uztailaren 25ean, Ana Goitiak *Katana* saioa egingo du. Bestalde, durangarren parte hartzea ere nabarmendu dute: Ander Berrojalbizen eta Maider Lopezen *Tres cuentos (des)concertantes* irakur-

keta musikatua, eta Leire Vargasen eta Jaime Nietoren *Bizi sintetikoak*. Bestalde, Belgikako *Claudette* ikuskizuna azpimarratu dute. Hain zuzen ere, 2024an ikuskizunik onenaren saria jaso zuen Leioako Umore Azokan.



'Welcome and sorry'. GANSO&CIA

Asteburuan lurretako XIX. Kalez kale jaialdia egingo dute

ANTZERKIA Gaur hasiko da lurretako kale antzerkiaren jaialdia; hemeretzigarren edizioa du aurtengoa

Aritz Maldonado IURRETA

Kalez kale antzerki jaialdiak hemeretzigarren edizioa egingo du aurten. Gaur hasiko da, 18:30ean, Ganso&Ci konpainiaren *Welcome and sorry* lanagaz; ondoren, 21:30ean, Deabru Beltzak taldeak *Su talka* ikuskizunaren Euskal Herriko estreinaldia egingo du. Modu honetan, konpainia lekeitiarrak lurretarren babesa eskertu gura izan du. "Kaleko antzerkian lurretak egin duen apustua eskertu gura dugu", azaldu zuen prentsaurrekoan taldeko zuzendari Oscar Castaño 'Garbitxu'-k. Zapatuan, beste emanaldi bi egongo

dira Askondon. Alde batetik, Trotamundos konpainiak *Finito infinito* aurkeztuko du, eta Zirko Zurrek *Kobr3*; 18:30ean eta 19:30ean izango dira zirku emanaldi biak. Zikloa borobiltzeko, Trapu Zaharra konpainia ezagunak *¡Dale, Ramón!* antzezlanakaleratuko du, Askondon, 13:30ean. "Ez da erraza gure herriaren moduko batentzat, eta oraindino gehiago ditugun baliabideak kontuan hartuta, egiten dugunaren pareko jaialdia egitea. Konpainiek ere sekulako lana egiten dute gure jaialdira moldatzeko", azaldu zuen Pili Jimenez udal teknikariak.



GAI LIBREAN

AINHOA OLASO SOPELANA BEHARGINA

Rave bat Landakon

Urteari urtea pilatu zaio. Gauden lekuan eta momentuan presente ez egotearen sentipena gailentzen ari da (orain disoziatzea esaten zaio). Baina egunak maitasunez dilatatzeke saiakeran gabiltza, orainak biharretik salbu iraun dezan, edo. Lanetik irtetean hilegi baigauke bizitzeko, baina bizitzari lotuegiak hiltzeko.

Soinuari haragian sartzen utzi eta dantza egiteko gogoa sartu zait azken egun hauetan. Ibilera sargaritsuaz aspertuta, gogaitasun atake batekin, urratsetik dantza pausora pasatzeko tentazioa sentitu dut. Eta oxala Durangoko plazaren batean, plazerraren aldarrikapen simple bat topatu: musika pixka bat, berunik gabeko erritmoan. Baina zaila egiten da kaleotan ezer antolatzea eta rave erradikal batekin akordatu naiz.

"Beats errepikakorren segidaren emisioa" debekatu zuen Margaret Thatcherrek 80ko hamarkadan Ingala-

**"HEMEN KALE GIROA
ETA JAIK ANTOLATZEKO
BIZI DITUGUN MUGAK
DOKTRINA HORRETATIK
HURBIL DOAZELA DIRUDI"**

terran. Jarraian etorri zen legeak, *The Criminal Justice and Public Order Act*, giroa hirietako periferiara atera eta modu klandestino batean eratzea eragin zuen, besteak beste. Denbora batera, paradoxikoki, ebento horiek egiteko esparru pribatuak prestatu ziren, orduetegi eta dezibelio mugekin. Sarrera garesti eta kontrol zorrotzekin. Eguneroko grisa iraultzeko prefabrikazio monetizatuak, gaur egunera arte iritsi diren makrojaialdiataraino. Baina ezarritako limiteei muzin eginda, musikari eta musika zaleek bestelako kartografia posibleen bila jarraitu dute ravearen kulturaren, festa edonon eta edonoiz muntatuta.

Inor ezin da apur bat exajeratu gabe bizi, baina hemen kale giroa eta jaiak antolatzeke bizi ditugun mugak doktrina horretatik hurbil doazela dirudi. Eta orduan eszena bat irudikatu dut, posible denaren astinaldi bat.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 13

ABADIÑO San Antonio Eguna
Meza nagusia, 12:00etan, Urkiolako Santutegian (orduero, ohiko meza). Nekazaritza azoka, 10:00etan. Trikitilariak, 11:00etatik 14:00etara. Sustrai Colina eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak goizean. *Urkiolan (10:00-15:00).*

ABADIÑO Kontzertua
Nekktar + Ainke.
Gaztetxean, 22:30ean

ATXONDO Plazerkekeriak
'Putaren bakarriketak eroetxean' (Laura Penagos).
Amillenan (Arrazola), 21:00etan.

DURANGO Euskal Jaiak
Kimikarin Kimika tailerrak, 17:30ean. 'Euskal diaspora: hainbat ezaugarri' berbaldia Xabier Irujogaz, 19:00etan (telematikoa izango da. Izen ematea: *intxaurrondo@durango.eus* helbide elektronikora idatzita). *Tabira auzoan.*

DURANGO Erakusketa
Eskola arteko XVI. marrazketa, pintura eta eskulanen lehiaketako lanak.
Ezkurdi aretoan, ekainaren 15era bitartean.

DURANGO Erakusketa
'Bizitza baten isileko lana'. Ignacio Andreu Uriarte durangarraren lanak. *Arte eta Historia Museoa, uztailaren 20ra bitartean.*

ELORRIO Erakusketa
'Espazioak eraikitzen' (Juan Jose Altunaren margoak). *Iturri kultur etxean, ekainaren 20ra bitartean.*

IURRETA Erakustaldia
Alboka, pandero, atabal eta dultzaina erakustaldia.
Abadetxean, 19:00etan.

IURRETA Kontzertua
Gorrotoa gorroto.
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Kale antzerkia
'Welcome and sorry' (Ganso&Cia).
Askondon, 18:30ean.

IURRETA Kale ikuskizuna
'Su talka' (Deabru Beltzak).
Amilburu plazan, 21:30ean.

ZORNOTZA Kontzertua
Soinutxikie trikitixa eskolakoak.
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa
'24 Emakume zientzian, artean eta letretan' erakusketa ibiltaria.
Zubiondon, ekainaren 16ra bitartean.

ZAPATUA 14

ABADIÑO Kantaldia
55 urtetik gorakoentzako kantu tailerreko partaideen kontzertua.
Errota kultur etxean, 12:00etan.

DURANGO Euskal Jaiak
Eixu artisau elkartearen azoka, Andra Mariko elizpean (11:00-21:00). Triki poteoa, 13:00etan, Alde Zaharrean. Kuadrillen bazkaria, 15:00etan. Batukada, 17:00etan. Txorongo fanfarrea (19:00-22:00). Herri Maite akordeoi taldea, 20:00etan, Kurutzesantu museoan.
Durangon.

DURANGO Erakustaldia
Uztai gimnastika erritmiko taldea.
Landako kiroldegian, 11:00etan.

DURANGO Munduko Arrozak
Tailerrak, 11:15ean. Ghanako txaranga, 12:00etan. Batudamak, 13:00etan. Herri bazkaria, 14:30ean. Kafea eta bizkotxoak, 15:30ean. Musika jartzailea, 16:00etan.
Landako Gunean.

IURRETA Bizikleta irteera
Gorlara irteera. Txirrindulari Elkartea.
Iurretan, 08:00etan.

IURRETA Kale ikuskizuna
'Finito infinito' (Trotamundos).
Askondon, 18:30ean.

IURRETA Zirkua
'KOB3' (Zirko Zaurre).
Askondon, 19:30ean.

MALLABIA VII. Gazte Eguna
Pala partiduak, 11:30ean, eskolako frontoian (semifinalak eta finala). Ondoren, plazara musikagaz.



KATXIPORRETA

MALLABIA Ikuskizuna
'Amazonia gara' ikuskizuna aurkeztuko dute Mallabian, gaur. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez naturaren eta biodibertsitatearen egoeraz hausnartzera deitu gura dute publikoa emanaldi honetan.
Ekainaren 13an, barikua, parkeko aterpean, 18:00etan.

Txupinazoa eta bazkaria, 15:00etan, Elizpean. Karropotea, 18:30ean. Kontzertuak, 21:00etan, plazan: Orrues + Gorrotoa Gorroto. Ondoren, DJ Totozer, soziedadean.
Mallabian.

MAÑARIA Albokan Rolla
Les Lullies + Reder + Sermond's. Gauerdian, KSKA Selektotarrak.
Plazan, 20:00etan.

ZALDIBAR Omenaldia
Blanca Onaindiari omenaldia.
Udaletxeko plazan, 12:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua
'Jai giroa gogoan' (Zornotzako Musika Banda).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

DOMEKA 15

ABADIÑO Errepetiziño Eguna
Meza, 10:00etan eta 12:00etan. Baserriko produktuen azoka, 10:00etatik 15:00etara. Herri kirolak, 12:45ean: Malen Barrenetxea, Nerea Arruti, Hodei Ezpeleta eta Bihurri (aizkora), Sara Asenjo (harri jasotzea), Ainhua Larrinoa (ingudea eta txingak), eta Karlos Aretxabaleta (Iparraldeko jokoak). Aiko taldea, 16:30ean.
Urkiolan.

DURANGO Euskal Jaiak
Julene Azpeitia lehiaketako sari banaketa, 12:00etan, Arte eta Historia Museoa. Kalejira eta dantza erakustaldia, 12:00etan, Merkatu plazan hasita

(euria bada Ezkurdi Jai Alai frontoian). Tabira musika bandaren kontzertua.
Andra Mariko elizpean, 19:00etan.

DURANGO Dantza
Nagusientzako dantzaldia.
Ezkurdi plazan (18:30-20:30).

GARAI Ibilbide gidatua
Garai Ezagutuz (Trumoitte elkarte).
Plazan, 10:30ean.

IURRETA Bizikleta irteera
Orozkora irteera. Txirrindulari Elkartea.
Iurretan, 08:00etan.

IURRETA Kale ikuskizuna
'Dale Ramon' (Trapu Zaharra).
Askondon, 13:30ean.

ZORNOTZA Erakustaldia
Kotxe klasikoaren topaketa.
Inguruko poligonoan (10:30-14:00).

ASTELEHENA 16

DURANGO Antzerkia
'Las olvidadas' (Gora ta Gora).
San Agustin kulturunean, 19:00etan.

IZURTZA Erakusketa
Marokoko argazkiak (Iban Gorriti).
Herriko Tabernan, ekainaren 26ra arte.

MARTITZENA 17

IURRETA Berbaldia
'Ucrania, imperios, militarismo' (Hizlaria: Carlos Taibo, idazlea eta Zientzia Politiken irakaslea Madrilgo Unibertsitate Autonomoan).
Ibarretxe kultur etxean, 18:30ean.

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Baltimore

Barikua 13: 18:00, 20:30.
Zapatua 14: 19:15, 21:30.
Domeka 15: 19:30.
Astelehena 16: 18:00, 20:15.
Martitzena 17: 18:00, 20:15.
Eguaztena 18: 19:00.

Votemos

Barikua 13: 18:00, 20:30.
Zapatua 14: 19:15, 21:30.
Domeka 15: 19:30.
Astelehena 16: 18:00, 20:15.
Martitzena 17: 18:00, 20:15.
Eguaztena 18: 19:00.

Cómo entrenar a tu dragón

Barikua 13: 18:00, 20:30.
Zapatua 14: 17:15, 20:00.
Domeka 15: 16:45, 19:30.
Astelehena 16: 17:45, 20:15.
Martitzena 17: 17:45, 20:15.
Eguaztena 18: 19:00.

Lilo y Stitch

Zapatua 14: 17:00.
Domeka 15: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Una quinta portuguesa

Astelehena 16: 20:15.
Martitzena 17: 20:15.

EGUAZTENA 18

IURRETA Berbaldia
Literaturaz berbetan: Xabier Amuriza.
Abadetxean, 19:00etan.

IZURTZA Berbaldia
'Mum Brakk II. Izar Gorri, mamuen betiko argi' (Hizlaria: Markel de la Fuente).
Erabilera anitzeko gelan, 19:00etan.

EGUENA 19

IZURTZA Berbaldia
Iban Gorritiren bidaia-hitzaldia.
Erabilera anitzeko gelan, 19:00etan.

BARIKUA 20

DURANGO Erakusketa
'Herri' (Luis Izaguirre Balberren lanak) erakusketaren inaugurazioa.
Otamotzena auzogunean, 18:30ean.

IZURTZA Kontzertua
Pelax.
HerrikoTabernako terrazan, 19:00etan.

ZORNOTZA Musika
Haizetara XVIII. Kaleko Musika Jaialdia.
Herriko kaleetan zehar.

"Gimnasia nire beste familia baten modukoa da"

EIDER AGIRRE PACHECO (EIBAR, 2006)

Eider Agirrek maila absolutuko Espainiako txapelketan parte hartuko du. Zaldibarko Olazarmendi klubeko gimnasta batek maila horretan parte hartzen duen lehenengo aldia da

Joseba Derteano ZALDIBAR

Gimnastika erritmikoak asko eman eta irakatsi dio. Horregaitik, pena handiz utziko du kirola denboraldi amaieran, lesio batzuegaitik. Errekupe-ratu eta bueltatzea espero du. Bien bitartean, min eta guzti, Espainiako txapelketa buru-belarri prestatzen dabil. Guadalajaran izango da, ekainaren 18tik 22ra.

Aurten Espainiako maila absolutuan zabilta, lehenengoz. Zelan lortu zenuen maila horretara igotzea?

Espainiako oinarritzko mailan hasi nintzen, eta iaz maila horretako txapelketan lehenengo geratu nintzen, maila absolutura igo nintzen. Sorpresa izan zen, denboraldi osoan txarto nabilelako mazoezin. Gozatzera joan nintzen txapelketara, eta a zer sorpresa! Denboraldiko saiorik onena egin nuen.

Orain, zure eta klubaren historian lehenengoz, maila absolutuko Espainiako txapelketan arituko zara. Zelan sentitzen zara?



Eider Agirre, Zaldibarko kiroldegia-ko ondoko entrenamendu saio bati ekin aurretik.

Niretzat asko aldatzen dira gauzak. Maila absolutuan hiru aparatu egin behar ditut, eta ez bat bakarrik. Erronka handiagoa da: hiru egunetan lehiatu behar dut, hiru aparatu, musika eta dantza diferentegaz... Presioa handiagoa da.

Zer helburu duzu txapelketan?

Egindako lanagaz tapizetik gus-tura irtetea da nire helburua. Eta hiru ariketak amaitu ahal izatea, lesionatu barik. Min dut oinean eta lepoan.

Zelakoa da aparatu batetik hirura egokitzea?

Gatxa izan da. Iazko ordu ko-puru berdintsua entrenatzen naiz, baina orain hirutan bana-tu behar dut denbora. Gainera, hiru dantzak berriak dira. Iaz mazoak egin nituen, eta aurten pilotagaz, xingolagaz eta uztaiagaz nabil.

Zein aparatu gustatzen zaizu gehien?

Egunaren araberakoa da, baina une honetan pilota da nire ku-tuna. Askok gustatzen zait eta nire gorputzeko beste atal bat dela sentitzen dut.

Txapelketan zehar ez duzu jakingo ariketa bakoitzean zer puntuazio jaso duzun eta zein postutan zoazen.

Halaxe erabaki duzue. Zergaitik?

Apur bat isolatzea mesedegarria dela uste dut. Sarritan, infor-mazioak zeure burua presiona-tzera zaramatza, gura barik bada ere. Esango nuke hobe dela ezer ez jakitea txapelketa amaitu arte, eta, beharbada, amaitu eta gero ere bai. Badaude txapelke-

ta batzuk oraindino ez dakidana zelan geratu naizen, eta lasai bizi naiz, edo jakingo banu bai-no lasaia.

Lesioak aipatu dituzu. Zelan bal-dintzatuko dizute etorkizuna?

Denboraldi amaieran utzi egin-go dut gimnastika erritmikoa. Erabaki hau saihesten ahalegin-du naiz denbora askoan. Gimna-sia nire beste familia baten mo-dukua da eta taldean giro bikai-na dugu. Ez nuen hainbeste asebetetzen nauen kirola utzi gura, baina ez zait beste erre-me-diorik geratu: fisioterapeutekin nabil, minerako pilulak hartzen... Gorputzak geratzeko eskatzen dit. Berriro bueltatzeko asmoa dut, baina ikusi egin beharko da gorputzak zelan erantzuten duen.

Bizitzako momentu batzuetan osa-sun mentala ere zaindu behar izan duzu. Zelan egin diozu aurre egoe-rari eta zer ikasi duzu?

Nire bizitza pertsonaleko arlo askotan oso exigentea izan naiz neure buruagaz. Momentu batean presio handiegia sentitzen nuen, nik neuk neure buruari jarritakoa eta kanpotik zetorrena. Ez nekien frustrazioa zelan kudea-tu eta depresio bat eragin zidan. Gimnasia izan da egoera hone-tatik irteten gehien lagundu didana. Gimnasia espazio segu-ru eta atsegin bat izan da beti niretzako. Niregan konfiantza hartzen lagundu dit. Denbora honetan zer ikasi dudana? Fru-strazioa eramaten eta exigentziak neurtzen ikasi dut.

Mailaz maila, dominak pilatu dituzte harrobiko gimnastek

Malen Dueñas, Irati Jaio, Hodei Rivas... Nagusietatik kimuetara, klubeko hainbat gazte nabarmendu dira aurten

J.D. ZALDIBAR

2015ean sortu zenetik hona, Ola-zarmendik lan handia egin du harrobiagaz. Zaldibarko nahiz inguruko herrietako gazteak klubera batzen joan dira eta eurekin pazientziagaz egindako lana bere fruituak ematen dabil apurka. Esaterako, orain aste-buru bi amateur mailako Eus-kadiko txapelketak jokatu ziren Durangoko kiroldegian, eta klubeko gimnasta bat baino gehiago nabarmendu zen. Malen Dueñasek urrezko dominak ira-bazi zituen pilotan eta uztaietan,

eta Irati Jaio iurretarra Euska-diko txapeldun geratu zen ka-dete mailan. Uztaiagaz eta ma-zoezin hirugarren lanik onena egin zuen eta saio bietako pun-tuazioa batuta, berarentzat izan zen urrezko domina.

DUEÑASEK ETA JAIOK URREZKO DOMINAK IRABAZI ZITUZTEN EUSKADIKO TXAPELKETAN

Adinean beherantza eginda, kimu mailako neskak ere nabarmendu beharrekoak dira. Orain aste gutxi Gasteizen jokaturiko Eskola Jokoetan, Nerea Antonek eta Elene Agirre-beñak osaturiko taldea Euska-diko txapeldun geratu zen.

Nesketan ez ezik, mutiletan ere lorpenak heldu dira. Horren adibide da Hodei Rivas gaztea. Joan zen apirilean, 12 urteagaz, haur kategoriako Espainiako txapelketan parte hartu zuen Guadalajaran, eta urrezko do-mina kolokatu zuen. Gainera, ezin esan sorpresa izan zenik, bigarren urtez jarraian geratu da-eta txapeldun, gimnasia erritmikorako dohain apartak dituela erakutsita. Nerea Gomez eta Ane Fernandez gimnastek ere txapelketa horretan parte hartu zuten.



Irati Jaio eta Malen Dueñas Euskadiko txapelketan lortutako dominekin. OLAZARMENDI

Azkorbebeitiak txapela, eta Arkarazok kopa

MENDI LASTERKETA Oihana Azkorbebeitia eta Ainara Arkarazo nagusi izan ziren Leitzako Euskal Herria Mendi Erronka lasterketan; beste behin ere, arnasa luzeko probetan berezkoa dutela erakutsi dute abadiñarrek. 600 bat korrikalarik parte hartu zuten

J. D. ABADIÑO

Beste behin ere, Abadiñoko neskak goiko postuetan ibili dira ultratrailean. Oraingoan, Euskal Herria Mendi Erronka lasterketan nagusitu dira, Leitzan (Nafarroa). Oihana Azkorbebeitiak irabazi zuen emakumeetan, 8:05:28 denboragaz; probaren erdi aldera arte, abadiñarrak lehia estua izan zuen Itxaso Zabaleta korrikalari leitzarragaz (8:14:29), baina azken txanpa luzean nafarrak ezin izan zion eutsi Azkorbebeitiaren erritmoari. Uxue Fraile veterano donostiarrak osatu zuen podiuma (8:23:48), eta Ainara Arkarazo korrikalari abadiñarra sailkatu zen hurrengo, laugarren postuan (8:40:06). Proba barruan lehiatu zen kilometro bertikalean ere nagusitu zen Azkorbebeitia. Asier Rajado korrikalari andoaindarrak irabazi zuen gizonetan, 6:52:05 denboragaz. Guztira, 600 bat korrikalarik parte hartu zuten proban.



Ainara Arkarazo eta Oihana Azkorbebeitia, helmugaratu eta gero.

Arkarazo, Kopan txapeldun

Euskal Herriko ultren kopa amaitzeko Tolosaldea Ultratrail Erronka proba falta den arren, Leitzako lasterketan baturiko puntuei eskerrak Ainara Arkarazo korrikalari abadiñarra da aurtengo Euskal Herriko

ultren kopako txapelduna, 320 puntu batuta.

Arkarazok denboraldi bikaina osatu du orain arte. Kopa irabazteaz gainera, Enkarterri Extreme ultratraila (60 km) eta Europako mendietako Desafio Cainejín (19,5 km) irabazi ditu.

Kadeteen Euskal Kopako Laukoa, gaurtik aurrera

FUTBOLA Realak, Alavesek, Antiguokok eta Athleticen jokatu dute txapelketa, Tabirako zelaian

J. D. DURANGO

Euskadiko Futbol Federazioak eta Durangoko Udalak hasitako lankidetzari eskerrak, Tabirako zelaia Emakumeen Euskal Kopako eta mutilen kadete eta gazte mailako Lauko Finalak hartu ditu bigarren urtez jarraian; asteburuan, erabakitzeke geratzen dena jokatu dute, kadete mailakoa. Gaur izango da lehenengo finalerdia, 17:00etan: Real - Alaves; 19:15ean jokatu dute bestea, Antiguoko - Athletic. Finala domekan izango da, 12:00etan. Gazte mailako finala Real B taldeak irabazi zuen, eta emakumeetan Real C-k, Elorrio mendean hartuta.



Real B. EFF

Pilota profesionala Durangon zapatuan

PILOTA Durangoko Ezkurdi Jai Alai Bizkaia Torneoako final-laurdenak hartuko ditu zapatuan

J. D. DURANGO

Pilota profesionala ikusteko aukera egongo da bihar, ekainak 14. Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak Bizkaia Torneoako final-laurdenak hartuko ditu. Partiduak 17:30ean hasiko dira. Torneo hau taldeka jokatu da eta Durangon final-laurdenak jokatu dira. Agirre, Artola, Albisu eta Bakaikoa pilotariak Sollube taldea osatu dute. Jaka, Larrazabal, Mariezkurrena II.a eta Senar pilotariak Kolutza taldea osatu dute. Sarrerak www.entradasfronton webgunean eskuratu daitezke, 20, 25 edo 30 eurotan. Lau eta erdian, Agirrek eta Zubizarreta III.enak neurtuko dituzte indarrak; binakoan, Artola eta Albisu bikoteak Larrazabalek eta Mariezkurrena II.enak osatzen dutenaren aurka jokatu du; buruz burukoan, Bakaikoa eta Senar lehiatuko dira.



JOKALDIA

GOTZON GOMEZ BARRENETXEA ERRUGBIA

Aitak utzitakoak

Oraingoan lizentzia txikia hartuta ez dut errugbia hizpide izango. Zergatik? Xabier Lizardi poeta handiak idatzi zuen bezala, nik ere bihotzean min dudalako, mina eta hutsune handia, eta lerro hauen bidez aitari omenaldia egin nahi diot.

Orain dela gutxi joan zaigu, eta, saminez eta tristuraz beterik banago ere, aldi berean poza eta harrotasuna ere sentitzen ditut nire barnean. Argi baitut naizen modukoa banaiz, hein handi batean berari esker dela. Aitak hainbat kontu erakutsi zizkidan bere ibilbidean, erabilgarriak izan daitezkeenak bizitzarako zein kirolerako. Hona hemen laburbilduta.

Lehenengoa, lanarekiko jarrera. Pertsona gutxi dira bizitza honetan arlo guztietan distira erakusteko gaitasuna dutenak, ingurukoak aho zabalik utz dezaketanak; beraz, gainerakook arlo jakin batean maila eman nahi badugu, daukagun bide bakarra esfortzuarekin eta lanarekin lotuta egongo da. Ordu asko eman behar-

ko ditugu entrenatzen eta izerdi ugari bota beharko dugu, gerora fruituak lortu ahal izateko.

Bigarrena, ez etsi. Aurrekoarekin lotura zuzena duen arren, baditu bere berezitasunak eta zehaztasunak. Aitaren hitzetan etsipena ez litzateke egon behar gure hiztegiaren barruan; etsi egiten badugu jai daukagu. Azken momentura arte hor izan behar dugu. Ekin, ekin eta ekin. Partidak zein bizitzak beti aukerak ematen dizkigu egoerari buelta eman ahal izateko eta sekulan ez ditugu besoak jaitsi behar. Esaten den moduan, jo ta ke irabazi arte, hor dugu arrakastaren seinale argia.

Hirugarrena, errespetua. Txikitatik errepikatzen zidan hitza. Errespetua kirolean, errespetua bizitzan eta errespetua pertsona guztiekin. Onartu beharra daukat zaila egiten zaigula beti mantentzea, baina jakin egin behar da galtzen, eta egokitzen zaigunean irabazten ere, egoera guztietan begirunea mantenduz. Galtzen jakitea ezinbestekoa zaigu, batez ere irabazten dugunean

garaipenaren zaporea dastatu ahal izateko. Era berean, irabazten jakitea ezinbestekoa da, kirolean aurkaririk ez badago partidarik ez dagoelako. Ideia honekin bukatzeko, nola ez, errespetua epaileari, beraiek ez baleude jokatzeko ezinezkoa litzatekeelako.

Bukatzeko, berak beti zuen buruan disfrutatzearen ideia, zerbait egiten dugunean disfrutatu behar dugu. Barruan dugun guztia ematen dugunean, orokorrean pozak eta harrotasunak betetzen gaitu. Irabaztea polita da, dudarik gabe, baina lehia gogor batean dena eman duzunean, barnean duzun sentsazioa itzela da. Taldearen mesederako justu eta lehiakorria zarenean, hori ezin daiteke hitzekin deskribatu, taldekideekin begiraden bitartez antzematen da, konplizitatearen bidez.

Hona aitari eskainitako esker oneko lerroak, Serafin Jauna, handia izan zarelako, bejondeizula eta euskal lurak gozo har zaitzala!

KOMIKIA

UNAI GAZTELUMENDI

GUNE

TENTSIONATUA

Hi Bai Bizi!

PREBARIK EZ

ETA GUNE TENTSIONATUA NAHI DUAN LEKURA DARAMAALA

!?

GUARDIAKO BOTIKAK

Ekainak 13, BARIKUA
09:00-09:00
Etxebarría, Montevideo etorb. 2. - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
Ekainak 14, ZAPATUA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
Ekainak 15, DOMEKA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
Ekainak 16, ASTELEHENA
09:00-09:00
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
Ekainak 17, MARTITZENA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
Ekainak 18, EGUAZTENA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
Ekainak 19, EGUENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Juanita
Juanita Uribezubiak 98 urte egin zituen hilaren 11n. Zorionak iloba guztien partez, eta, batez ere, Maria Pilarren eta alaba Floraren partez.



Chloe eta Nare
Gure etxeko txapeldunei, zorionak, bihotzak! Zuek zarete egunero gure oparirik politenenak! Disfrutau egun guzti hauek, eta datozenak! AMZ



Haize
Zorionak, **Haize!** 7 urtetxo.



GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

Zapatua, 14

Min. 15°

Max. 17°

Domeka, 15

Min. 14°

Max. 17°

BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK

Ekaina

14 LARUNBATA

LEGAÑO AUZOKO JAIAK

20 OSTIRALA

MOZORRO MITOLOGIKOAK

17:00 Berrizjauregi

22 IGANDEA

SAN JUAN DEUNAREN JAIAK

23 ASTELEHENA

SAN JUAN GAUA

XIX. IURRETA KALEZ-KALE 2025

Ekainak 13

18:30 Askondo

Ganso

Welcome and sorry

21:30 Amilburu

Deabru beltzak

Su talka

Ekainak 14

18:30 Askondo

Trotamundos

Finito infinito

19:30 Askondo

Zirko zaurre

Kobr3

Ekainak 15

13:30 Askondo

Trapu zaharra

Dale Ramón

Bizkala

Basque Country

Basque Country

Basque Country

Iurreta

Basque Country

INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



C.E.E=G 145.000 €

DURANGO 2 logela, komuna, sukalde-egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E= F 193.000 €

MIKELDI Erdialdean. 3 logela, 2 komun eta sukaldea terrazarekin. Balkoia.



C.E.E.:B 265.000 €

DURANGO 70 m2-ko apartamentua. Jantzia. Terraza. 12 m2-ko trastelekua. Garajea.



C.E.E:E 315.000 €

J.M. ALTUNA 115 m2. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela handia. Ganbara eta garajea. Berriztatua. Jantzia.



C.E.E. = F 195.000 €

DURANGO 5 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzen sartzeko moduan.



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

Artekalea: Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna eta sukaldea. 3.solairua. Igogailurik gabe.

San Inazio auzunea: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.

Arkotxa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Garajea.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

ATXONDO

3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Markina: Iturreta auzoan. Baserría salgai. Teilatua konponduta. 12.000 m2-ko lur sailarekin.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI


Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI IURRETA

Arriandi industrigunean. 111 m2. Bulegoa eta komuna.

Arriandi industrigunean. 400 m2. Biltegirako aproposa.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E: F. 163.000 €

DURANGO San Fausto: 53 m2 (2.017. urtean berriztatua) Egongela-sukaldea, 2 logela eta komuna duxarekin. Ezin hobe. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendealde) Pisu altua eta argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: F. 179.000 €

DURANGO Askatasun Etorbidea: 63 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna duxarekin. Berrikuntzak behar ditu. Lehioak oraintsu aldatuta. Berantolaketa bat egiteko aukera. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (iparralde) Pisu altua eta argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak. ITE-a pasatuta.



C.E.E: BIDEAN. 214.000 €

DURANGO Untzillatz: 48 m2. Egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Balkoia. Ezin hobe. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (mendealde) Pisu altua eta argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garajea eta ganbara.



C.E.E: BIDEAN. 290.000 €

DURANGO Muruetatorre: 95 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean baina berrikuntza batzuk behar ditu. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garajea eta trastelekua ondoan.



C.E.E: E. 129.000 €

IURRETA Bixente Kapanaga: 81 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du.(ipar, hego-ekialdea) Etxebizitza altua eta argitsua. Leku onean kokatua. Jantzita.



Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

BERRIAK DURANGO

Murueta Torre auzunea: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **355.000 €/ E.E.Z=F**

Zabale Kalea: 3 logela, sukaldea, egongela terrazarekin eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **315.000 € / E.E.Z=Bidean.**

DURANGO

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 €/ E.E.Z=E**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Zeharkale kalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.**139.000 € / E.E.Z=E**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolako: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserría lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserría lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeo baserría lursailarekin. **350.000 €**

GARA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 570.000 € ORAIN 530.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI/ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.** Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.



LAU-HORTZA

MAITE EUBA
AREITIOAURTENA

50

Marka ezagun baten ikurra izan liteke, taila ez normatiboa, bizitzaren erdia edo ametsetako pisua baten batentzat. Baina ez ba, ez da hori. Ze inportantea den testuingurua; testuingurua ezagutzea, jakina. Dakigunean zein den, ulertzen, argitzen, gorrotatzen edo maitatzen eta sarritan barkatzen laguntzen digu. Niri testuingurua asko gustatzen zait ezagutzea, jakina, behar-beharrezkoa da gozatuko badugu eta; denak gozatzekoak ez diren arren. Inguruari erreparatu, bestela.

Gaurkoan testuinguru aberatsa, anitza eta egonkorra aipatu nahi dut. 50 urte gutxi gora-behera txikitako lagunekin sortu eta egiten ari garen ibilbidea. Askok partekatu dugu; ez urteak bakarrik. Sasoiaren arabera momentu alaiak, tristeak, gogorak, arinagoak, sakonak... Abentura, bidaiak, barre eta negar artean makina bat kontu, eztabaida eta buruko min. Batak bestea bere erara zaindu dugu eta eutsi egin diogu eskolan hasi genuen adiskidetasunari.

Eskaileran gora goazen heinean, taldea hasi egin da urteekin batera, aberastu, kolorez jantzi, iritziak partekatu, lagun kopurua handitu. Zaintza eskaini eta eskatu.

Joan den asteburuan horixe izan da bizi izan dudana testuingurua, gozagarria, bizi-bizia. Maite duguna zaintzen. GU.

Zelan dago zure testuingurua?

AKUILUA

"Jarraitzeko gogotsu gaude, eta ateak zabalik"

ITXASO ARRIZABALAGA LINAZA MUSIKA IRAKASLEA

Mañariko Kirikiño abesbatzako zuzendaria da sortu zenetik, orain 40 urtetik. Bizkaiko Abesbatzen Elkartean dagoen koruko kideak astero elkartzen dira entseatzeko



A. Basauri DURANO

Mañariko Andra Mari guraso elkartearen ekimenez jaio zen Kirikiño, 1985ean. Ordutik hona abesbatzak egindako bidea ezagutu du Itxaso Arrizabalagak (Durango, 1966). Parrokia inguruan sorturiko korua 13 ahotsek osatzen dute gaur egun. Korua zuzentzea "oso aberasgarria" dela dio Arrizabalagak, eta aurrera jarraitzeko metxa duela oraindino.

Zelan hasi zinen Kirikiñon?

Mañariko parroko Martzel Andrinua ezagutzen nuen, eta umeei musika eskolak ematea proposatu zidan. Hala hasi nintzen,

"PUBLIKOARENGANDIK JASOTAKO FEEDBACKAK AURRERA EGITEN LAGUNTZEN DIGU"

eta andramariak hurbildu ahal umeei abestiren bat prestatzea proposatu nien. *Ama Eder* abestu genuen, hiru ahotsetara, Andra Mari egunean. Ordutik jarraitu dugu.

40 urtez eutsi diozue koruari, ez da gutxi.

Bai. Bizitzaren kontu desberdina direla-eta, askok utzi dute abesbatza, baina horietariko batzuk bueltatu egin dira denbora batera. Ahots faltagaitik

eten bat gertatzen denean, gatz da berriro bueltatzea. Zorionez, Kirikiñori ez zaio horrelakorik gertatu, eta posible izan dugu korua mantentzea.

Zelan garatu da korua urte hauetan?
Eboluzio bat egon da. Errepertorioa, kantarako gogoia, segurtasun maila... Umeen korua izatetik emakume helduen abesbatza izatera pasatu gara, eta obren zailtasun maila igo egin da.

Emakumez osaturiko abesbatza izateak baditu bere zailtasunak?

Ez. Ahots gutxi garestia da oztopo bakarra. Denon ahotsak dira garrantzitsuak, eta horrek mugatu egiten gaitu apur bat. Baten batek huts egiten badu, ezin dugu kontzertua eman. Koruan abesteak konpromiso bat eskatzen du, konstantzia, eta asko ez dira animatzen. Emakumeen abesbatza gara, baina ez dugu hori bilatu. Halaxe suertatu da.

Atzera begiratu gero, zein momentu azpimarratuko zenuke?

2007an Miranda de Ebron (Espainia) egin zen estatuko Habanera Txapelketa irabazi genueneko. Egundokoa izan zen, koruarentzat bultzada handia. Bestalde, pasatzen ditugun momentu atsegin guztiak.

Zein da Kirikiñoren helburua?

Batez ere, musikagaz eta abes-teagaz disfrutatzea. Sarritan, publikoarengandik jasotako feedbackak aurrera egiten laguntzen digu, gainera. Disfrutatzen egiten dut musikagaz, eta besteengan gozamen hori sortzeak bete egiten nau.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Aurrera jarraitzeko gogotsu gaude, eta ateak zabalik. Bildurrik barik abesbatzan parte hartzera animatu gura dugu jendea. Dena ikasten da.

ATXONDOKO
UDAL IGERILEKUA2025 denboraldia
Ekainaren 23tik irailaren 7raOrdutegia
11:00-20:00

SARRERA

4 urtera arteko
umeak debalde5-17 urte
bitartekoak 4€

18tik gorakoak 5€

